

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-11-21
ASTELEHENA
343. ZENBAKIA
8. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Jakiunderen osoko bilkura Bergaran



Bergarako osoko bilkura. | IRATI GOITIA

Aurrenekoz egin dute, baina aurrerantzean Olaso dorrea izango da jakintsuen egoitza | 6



Realeko neskek 2 eta 0 irabazi zioten Mojategin Zaragozari | 22

'La Revoltosa' zarzuela, ikuskizun eta arrakasta borobila Arrasaten | 29



16.408
%47,45

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK 2011

DEBAGOIENA

8.352
%24,15

5.474
%15,83

2.455
%7,10

1.097
%3,17

245
%0,7

161
%0,46

Errolda:
50.883
Botoak:
34.825
Abstentzia:
16.058
%31,55



Debagoieneko herri guztietan nagusitu da Amaiur koalizioa

- ▶ EAJ izan da bigarren indarra, 2008ko boto kopurua mantenduta
- ▶ Alderdi sozialistak behera egin du nabarmen erdira jaitzita
- ▶ Maite Aristegi eta Lore Leanizbarrutia Madrilgo Gorteetan izango dira | 2

Mondra baino gehiago izanda, Aloñarentzat gol askoko derbia

4 eta 2 irabazi zuten gorriek, hegaletatik min egin ez eta aurkaria baino argiago ibiliz | 22



Aloñako Mikel Urkia eta Mondrako Lander Andres lehian. | JULIO CALLEJA

Txema Gisasola izango da Mondragoneko hurrengo buru


Uztailean ordezkatuko du Jose Maria Aldekoa, hau erretiratzean | 7

Garaipen garrantzitsua lortu zuen MUK Oncinedarekin

Natra Oñati Aloñak ezin izan zuen babesletza irabaziz estreinatu | 24



Aristegi pozik, Iruñean. | ARGAZKI PRESS



goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

ATERA IRRIBARREA



CLINICA DENTAL
BERGARA

gahir[™]
Fisioterapia
osteopatia

▶ Zoaz 32. orrialdera

Txartela, beti aldean



Raxoiren garaipena, Lopez kinka larrian eta Amaiur-EAJ, lehia bizian

- ▶ Debagoiengan eta Gipuzkoan nagusitasun osoa erakutsi du Amaiurrek
- ▶ EAEn eta Hego Euskal Herrian ere bai, nahiz eta bototan, Euskadin, EAJk irabazi

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Gutxi gorabehera, inkestek ziotena bete da, inkesta guztiek gauza bera esaten ez bazuten ere. Eta, Espainian, PP nagusitu da, eta erabateko gehiengoa lortuz, gainera. Ikuskizun dago ze ondorio duen horrek ekonomian, finantza merkatuetan, langabeengan, herritar ororen eskubide murrizketetan...

Argi dago: bai EAJren, baina baita Amaiurren eragin ahalmena, gutxitu egingo da Madrilan. Inoiz baino gehiago, Euskal Herria begira jardun beharko dute bi indar abertzaleek. Keinuak, antzezpena, zarata... izango dira garrantzitsuago, isileko lan neke-tsu eta praktikoa baino.

Basagoitiren arnasa lepoan

Lopezengandik noiz amaituko den ikuskizun dago, sozialisten deskalabruaren ostean. Raxoi eta Basagoitiren arnasa lepo ondo ondoan sentituko du aurrerantzean Lopezek. Eta, abertzaleak, Lakuarako karrera hasiko dute gaurtik aurrera, lehia bizi, gogor eta interesgarrian. Ikuskizun dago: zeintzuk diren lehendakariak eta Amaiur berriro ere aurkeztuko den ala ez; zer gertatzen den Sorturekin eta Aralarrek zer erabakitzen duen aurrerantzean. Nafarroako emaitzak argigarriak izan dira eta aztertzea merezi du Amaiurrek Nafarroan lortutako emaitzak; ziur, espero zituztenen azpitik. Aralarren boto asko Geroa Baira joan dira.

Nafarroa? Geroa Bai?

Amaiur nagusi da Hego Euskal Herrian eta EAJ Euskal Autono-



Amaiurreko ordezkariak, tartean Maite Aristegi, ospatzen Iruñeko Labrit pilotalekuan. | ARGAZKI PRESS

mia Erkidegoan. Bototan. Ze, Amaiur jeltzaleen aurretik da, eserlekuetara dagokienean, EAEn eta Hego Euskal Herrian.


Debagoiengan eta Gipuzkoan, Amaiur nagusi; Bizkaian, EAJ; Araban, PP, eta Nafarroan ere bai, UPNrekin batera. Baina abertzaleak hirugarren eta laugarren indar Nafarroan, besteak beste, zatituta aurkeztarreen. Osterantzean, nabarmentzekoak Geroa Bai eutsi izana, Uxue Barkosekin. Senaturako, abertzaleen arteko lehian: EAJk, 4 eta Amaiurrek 3 ordezkari lortu dituzte.

Bi debagoiendar Madrilgo Gorteetan

Bi debagoiendar izango dira Madrilgo Gorteetan. Hala erabaki zuten atzo gipuzkoarrek. Batetik, Maite Aristegi (1962) bergararra (Amaiur). Kongresuko diputatu eta bat izango da. Bestetik, Lore Leanizbarrutia (1956) aretxabaletarra, EAJren senatarietako bat izango da. Azken honek badu esperientzia zeregin horretan, aurreko legealdian ere senatari izan zen-eta. Aristegik alaba bi ditu eta Leanizbarrutiak seme bi. Euskal Herriaren interesak defendituko dituztela nabarmendu dute biek ala biek.



Aristegi. | GOIENA



Leanizbarrutia. | GOIENA

Euskal Autonomia Erkidegoan EAJk boto gehien eta Hego Euskal Herrian Amaiurrek

Amaiur gailendu zaio EAJri Hego Euskal Herriko lau lurraldeak kontuan hartuta, bototan, gutxigatik, eta eserlekuetan (7-5). Baina jeltzaleak nagusi dira, bototan, EAEn, Amaiurrek eserleku bat gehiago lortu duen arren.

ARABA

ALDERDIA	BOTOAK	%	DIPUTATUAK
Amaiur	32.267	%19,11	1
EAJ	31.849	%18,86	1
PSE-EE	39.579	%23,44	1
PP	45.891	%27,17	1
EB-Berdeak	6.897	%4,08	-
EQUO	3.559	%2,10	-
UPyD	4.649	%2,75	-
ABSTENTZIOA	74.815	%30,36	

BIZKAIA

ALDERDIA	BOTOAK	%	DIPUTATUAK
EAJ	208.223	%32,62	3
Amaiur	122.606	%19,21	2
PSE-EE	136.426	%21,37	2
PP	113.021	%17,70	1
EB-Berdeak	24.117	%3,77	-
EQUO	7.356	%1,15	-
UPyD	10.830	%1,69	-
ABSTENTZIOA	276.331	%30,00	

GIPUZKOA


ALDERDIA	BOTOAK	%	DIPUTATUAK
Amaiur	129.655	%34,80	3
EAJ	83.445	%22,40	1
PSE-EE	78.100	%20,96	1
PP	51.088	%13,71	1
EB-Berdeak	12.508	%3,35	-
EQUO	4.342	%1,16	-
UPyD	5.686	%1,52	-
ABSTENTZIOA	179.302	%32,31	

NAFARROA*

ALDERDIA	BOTOAK	%	DIPUTATUAK
Amaiur	49.064	%14,87	1
Geroa Bai	42.372	%12,84	1
PSE-EE	72.591	%22,00	1
UPN-PP	125.935	%38,17	2
EB-Berdeak	18.209	%51,52	-
EQUO	3.576	%1,08	-
UPyD	6.882	%2,06	-
ABSTENTZIOA	134.696	%28,66	

*Botoen %99,9 zenbatuta zegoeneko datuak dira.


ARRASATE



Errolda: 17.856 Abstentzioa: 5.972 (%33,44)

BOTO ASKO GALDU DITU PSE-EE-K 2008ko hauteskundeetan lehen indarra izan bazen ere, bigarrena izatera pasa da: 1.704 boto galdu ditu. EAJ eta PP mantendu egin dira eta Amaiur argi eta garbi nagusitu da.


BERGARA



Errolda: 11.871 Abstentzioa: 3.657 (%31,36)

AMAIUR NABARMEN NAGUSITU DA Botoen ia erdia jaso ditu Amaiurrek; bigarren indarrak, EAJk, baino 1.868 boto gehiago jaso ditu. Alderdi sozialistak 2008an baino 785 boto gutxiago jaso ditu eta PPK 59 boto irabazi ditu.


OÑATI



Errolda: 8.818 Abstentzioa: 2.489 (%28,14)

BOTOEN ERDIAK AMAIURRENDAKO Botoen %52,75 jaso ditu Amaiurrek, bigarren indarrak, EAJk, baino 1.439 boto gehiago. Sozialistek ia botoen erdia galdu dituzte 2008ko datuekin alderatuz gero eta PPK apur bat egin du gora.


ARETXABALETA



Errolda: 5.331 Abstentzioa: 1.671 (%31,34)

NAGUSITASUN GARBIA AMAIURREK Amaiur gertu-gertu egon da boto guztien erdiak lortzeko (%47,64). Jeltzaleek 850 lortu dituzte eta sozialistek 539. Ondoren datoz, PP eta IU, botoen %7,45 eta %3,45ekin. Equok, 30 eta UPyDk 27.


ESKORIATZA



Errolda: 3.214 Abstentzioa: 1.157 (%36,25)

BIGARRENA IA BIKOIZTU Amaiurrek ia bikoiztu egin ditu sozialisten botoak Eskoriatzan. Jeltzaleak eta sozialistak paretsu ibili dira eta, ostean, PP, IU, UPyD eta Equo, azken hauek antzera, 15 eta 14 botorekin, hurrenez hurren.


ANTZUOLA



Errolda: 1.745 Abstentzioa: 435 (%25,59)

AMAIUR ERABAT NAGUSI Botoen %55 eskuratu du Amaiurrek Antzuolan, erabateko nagusitasuna lortuz. Jeltzaleak izan dira bigarren indarra, 292 botorekin (%23,13) eta sozialistak hirugarren, 174 botorekin (%13,78).


ARAMAIO



Errolda: 1.199 Abstentzioa: 336 (%28,02)

EQUO, ONDO Amaiurrek patxadaz irabazi ditu hauteskundeak Aramaion: 578 boto (%68,16); bigarren, EAJ, 195 (%22,99), eta PSEk 33 (%3,89). Deigarriak Equoren emaitzak: 12 boto. Baliogabeak ere asko izan dira: 15.


ELGETA



Errolda: 884 Abstentzioa: 234 (%26,47)

PARTE-HARTZE HANDIA Amaiurrek irabazi du (%58,81); bigarren, EAJ (%28,39). PSEk 3. postuari eutsi dio. Nabarmena da parte-hartze handia: 650 boto (%73,52). Bitxikeria gisa, boto bat PACMA alderdiarendako izan da.

LEINTZ GATZAGA



Errolda: 199 Abstentzioa: 67 (%33,66)

EMAITZA GARBIA Amaiurrek arrakasta garbia lortu du Gatzagan: baliozko botoen %67,44 (87 boto). Bigarren EAJ da, %26,35ekin. Distantzia handira, IU-Ezker Anitza dago, hiru botorekin (%2,32). Abstentzioa ere handia izan da: herena.

Hauteskunde eguna, gora-beherarik gabe gurean

- ▶ Goizeko bederatzietan hauteslekuak ireki orduko bazebilen jendea botoa ematen
- ▶ Ez zen inolako arazorik izan bozka ematerako orduan, bai bitxikeria bat edo beste



Kazetariak Maite Aristegi elkarrizketatzen, botoa eman behar zuen Martinez de Irala eskolaren kanpoaldean.



EAJko Juan Karlos Garitano Erguinen botoa ematen.



Neskatala aitaren eginbeharretan.



Hautesmahaian bokadilo eta guzti.



Ezker Anitzako Isabel Salud bere hautua egiten Bergarako Labegarietan.



PSE-EEko Aritz Arrieta bozkatzen.



Zailtasunak izan arren, bozkatzera.



Nortasun agiria hautestontzian.



Boto zenbaketa hasteko puntuan Arrasateko Uarkapen. | ARGAZKIAK: JULIO CALLEJA

HAUTESLEKUAN BERTAN

Zer eskatuko zenieke hurrengo gobernuburuari eta gainerako herri ordezkariari?



IÑIGO ARANBURU OÑATI

"Beraiengan pentsatu beharrean, herritarrengan pentsa dezatela".



MILA PEDREGAL OÑATI

"Bereziki enplegua sor dezatela, izan ere, izugarrizko lan beharra dago".



INAZIO OLALDE OÑATI

"Erretiratuei pentsioak ez jaitea eskatuko nieke nik politikariei".



MARIASUN ELORRIAGA BERGARA

"Bakea bermatu dezatela eta herritarren beharrak kontuan izan ditzatela".



RODRIGO PIÑEIRO BERGARA

"Zintzotasuna, gutxiago lapurtu dezatela eta lan gogor egin dezatela".



MIGEL ITURBE BERGARA

"Orain arte ez dira euskaldunoz gogoratu, eta ea orain kontuan izaten gaituzten".



KARMEN FERNANDEZ ARRASATE

"Gauzak ondo egin ditzatela eta ez daitezela gutaz aprobetxatu orain arte bezala".



IÑAKI ZABALA ARRASATE

"Euskal Herrian bakea behin eta betiko lortzeko gogor borroka egin dezatela".



MARGA IRIARTE ARRASATE

"Guztiondako lana, eta hobekuntzak kulturaren eta gizartearen".



Abertzaleen garaipena Hego Euskal Herrian, eta ezusterik ez Espainian

Fermin Etxegoien
Kazetaria
Gaztea Irratia



"Bi talde abertzale izango dira Kongresuan"

"Euskal Herriatik bi alderdi abertzaleak taldea izango dute Madrillgo legebiltzarrean, eta hori ez da orain arte inoiz gertatu. Nafarroan, Geroa Bai eta Amaiurren artean botoen %25 lortu dute; abertzaleak ordezkaturik daude han, beraz. Bestelakoan, Amaiurrek sendotasun handia erakutsi du lurralde guztietan.

Espainian, PP jaun eta jabe izango da. Oro har, boto gehienak posibilismoaren inguruan batu dira, baina badago Europari eta sistemari planto egin nahi dien jende asko, eta hor daude alderdi txikiagoak.

Aipagarria da ere CiUk sei jesarleku gehiago lortu izana, PSCren bizkar, lehen aldiz".

Xabier Letona
Kazetaria
'Argia'



"Nafarroako abertzaleena historikoa izan da"

"Garai berrietatik espero zen emaitza lortu da hauteskunde hauetan. Maiatzeko Foru eta Udal hauteskundeetako joera mantendu da; errealitate berri bat dago. Aipatu, lehia estua dagoela EAJ eta Amaiurren artean. Zerbait historikoa izan da alderdi abertzaleak lehenengo geratu dira -eta EAEn. Hau ez zen gertatzen 1977tik. Nafarroako kasua, zuhurtziaz hartu behar da, baina historikoa izan da. Alderdi abertzaleek Amaiurrek eta Geroa Baik ordezkariak lortu dute-eta. Eta Espainian mailan ez da nobederik egon, aurreikusten zena. Raxoik ospatze diskurtsoa eman beharrean inbestidura diskurtsoa eman duela ematen zuen".

Joseba Lezeta
Kazetaria
'El Diario Vasco'



"Udal hauteskundeetako joerak berretsi egin dira"

"Amaiurrek udal hauteskundeetan izan ziren emaitzak sendotu ditu; igo baino gehiago, kontsolidatu egin da. Gipuzkoan, boto abertzalea argia da, eta EAEn ere bai, alde batzuekin lekuaren arabera; Araban, aipagarria da Amaiurrek EAJk baino boto gehiago izatea. Oro har, udal hauteskundeetan ikusi ziren joerak berretsi egin dira.

Espainian, espero zena gertatu da: PSOEek kolpe handia izan du, eta Andaluzian ere, bere gotorlekuan, galdu egin du. Koiunturak eragindako emaitzak izan dira, eta PSOErendako zigor-botoa egon da; horrez gain, PSOEko jarraitzaile asko ez dira bozkatzerara joan".

Unai Loidi
Kazetaria
EITB



"Interesgarria litzake hau Gasteizera eramatea"

"Bipartidismoaren ondorio dira emaitzak eta hala jarraituz gero lau urte barru PSOEek irabaztea ez litzake harritzekoa izango. Inkestek aurreikusten zuten emaitzak eman dira. PPren EAeko emaitza onak ere bipartidismo horren ondorio direla deritzot. Izan ere, Amaiurren sarrerarekin ere hemengo eserlekuak mantendu dituzte. Amaiurren emaitzak ez dira sorpresa izan, udal hauteskundeetako emaitzak eta ETAK armak behin betiko uzteko iragarpenaren ostean.

Bestalde, interesgarria litzateke emaitza hauek Gasteizera eramatea, hau da, Legebiltzarreko hauteskundeetan indarrak nola parekatuko ziren ikustea".

Felix Iriarte
Kazetaria
Noticias Taldea



"Amaiurrek eta GBk gogoeta egin behar dute"

"Espainiako hauteskundeetan PSOEek eta PPK lortu izaten dituzte boto asko, baina orain, inoiz ez bezala, abertzaleek emaitza bikainak lortu dituzte: 11 diputatu, zazpiren kontra. EAJk eta Amaiurrek, biek batera, botoen %50 baino gehiago dute, erabateko gehiengoa. EAJk Amaiurren tsunamiari eutsi dio, erronka sendo hartu duen erakusle. Nafarroan, GB eta Amaiurren arteko lehia egon da eta abertzaleak diputatu bat gutxiago izateko arriskuan izan dira; horretaz hausnartu beharko lukete.

PSOEek urte batzuk beharko ditu hobetzeko. Irtengo da, baina kolpe gogorra hartu du oraingoan".

Maria Agirre
Kazetaria
Euskadi Irratia



"Hurrengo Jaurlaritzara begira jarri gaitzakete"

"Mapa politiko berria utzi digute hauteskunde hauek. PPren garaipena handia izan da, baina bihartik aurrera duten egitekoa ikusita, beharbada bertigo apur bat emateko modukoa izan da. Popularentzat batere errazak izango ez diren lau urte izango dira. Etxera etorrita, hurrengo Jaurlaritzara begira jartzeko balio dezakete emaitzek. EAEn, Bildurenak segida izan du Amaiurren garaipenarekin. Hala ere, jeltzaleek eutsi diote. Patxi Lopez gobernari, berriz, iraungitze data gero eta argiagoa ikusten zaio. Emaitza hauek are interesgarriago egingo dituzte EAEn urte eta erdi barru beharko luketen hauteskundeak".

LEHEN BISTARAZOA

Gazi-gozaok

MIKEL IRIZAR
Iritzi-emailea
'goiena.net/blogak/piperrautsa'



Oraingoan ez dute denek irabazi. Espainian sozialistek nabarmen galdu dute, eta aldapa gogorra datorkie hurrengo hilabeteetan.

Ez du, ordea, errazago irabazle nagusiak. Raxoik ondo irabazi du, Aznarren emaitzarik onena gaindituz. Eta horrek aukera ematen dio hainbat hipotekatik libratzeko, bereziki, euskal egoera berrian solaskide ganorazkoa izateko.

Baina krisiarekin zer egingo duen ez dakigu, eta, aldiz, argi dago kanpotik emandako enkarguak bete beharko dituela: murrizketak eta doikuntzak. Kanpainan ezagutu diren inkestek emaitza hau aurreratzen zuten, baina merkatuek ez diote horri inongo jaramonik egin.

Euskal Herriko emaitzak ezberdinak izan dira. Espainiako irabazlea izan da hemen galtzaile nabarmenena. Basagoitik nahi duena esango du, baina olatu espainiarraren erdian lehengo eserleku berdinekin geratzea ez da emaitza ona, inondik ere.

Amaiurrek finkatu egin du Bilduk hasi zuen bidea, eta emaitza oso onak izan ditu bere hautesleei gutxien interesatzen zaizkien hauteskundeetan. Taldea eta ahotsa izango du Madrilen, ea nola darabilen, iraganeko akatsetan erori gabe. Etxera begira, orotara, gainditu egin ditu EAJren botoak eta hegemonia disputatzeko hautagaitza aurkezten du.

Eta EAJk ere ondo bete ditu bere helburuak, taldeari eutsi eta Amaiurren bultzadari aurre egin dio EAEn. Azken boladan aginte gune asko galdu ditu eta emaitza honekin txukun samar joan daiteke barne hauteskundearen prozesura.

Emaitza oso esanguratsua Nafarroan, lehen aldiz bi diputatu abertzale eta arrazoia Geroa Bairen hautagaitza defendatu dutenei. Argi dago, nafar soziologia berezia dela eta kontu handiz irakurri behar direla hango emaitzak.

Krisia ez da berehalakoan konponduko, baina beste gauza batzuk has daitezke itxura ona hartzen hemendik aurrera.

"Arrazoia, Geroa Bairen hautagaitza defendatu dutenei"

Aurrera begira

ENEKO AZKARATE | 'eazkarate@goiena.com'

Gasteizko "okupa" botatzea premiazkoa dela dio Amaiurrek, eta jeltzaleak zain dira Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak noiz ailegatuko. Geroago eta gutxiago geratzen zaie sozialistei azken botere guneak galtzeko. Eta, abertzaleendako, epe laburrean, normalizazio politikoa, presoen egoera eta Gasteiz lehenetsun dira. Ze, atzokoetan, ustekabe handirik ez: Amaiur jeltzaleen aurretik, baina EAJk boto gehiago. Orain: ze gertatuko da Rubalcabarekin? Lopezekin? Noiz askatuko dute Otegi? Erkoreka Gasteizera begira? Aurtengoa bezalatsu, interesgarria dator 2012a, eta Lopezen osteko garaia zeinek gidatuko duen ikusteko dago: abertzaleen arteko lehia, bizia, estua eta polita.

POLITIKARIEN BALORAZIOAK

MAITE ARISTEGI
AMAIUR

"Herriak argi esan du indar metaketa baloratzen, bultzatzen duela. Herria gatazka politikoa konpontzearen aldekoa da, demokrazia eta errespetua eskatzen du. Indarra ematen digu Madrilen gure eredu demokratikoa ordezkatzeko".

LORE LEANIZBARRUTIA
EAJ

"Gipuzkoan pena izan da bigarren diputatua lortu ez izana. Baina gero eta indartsuago jarraituko dugu lanean. Oso garrantzitsua Geroa Bai gureganatzea eta UPN-ri kendu izana. Gipuzkoar moduan pena, baina emaitza onak".

ARITZ ARRIETA
PSE-EE

"Inkestek aurreikusten zutena bete da. Orain ikusi beharko da PP-k agindu duena betetzen duen eta terrorismoaren auzian zein jarrera hartzen duen. Tristura puntua daukat, PP-k irabazi baino gainerako denok galdu dugulako".

ITZIAR LAMARAIN
PP

"Espainiako oso emaitza onak dira. Euskadin Amaiurrek indar handia hartu eta gu pozik gaude galdu ez dugulako. Arrasaten ere aurreko hauteskunde orokorretan lortutako emaitzak mantendu ditugu; PSOEek, berriz, ia erdia galdu du".

JUAN LUIS MERINO
EZKER ANITZA-IU

"Estatukoarekin benetan pozik gaude hirugarren indarra baikara. Euskadin ere udal eta autonomiako emaitzak gainditu ditugu eta espazioa badagoela ikusi da. Debagoiena mailan emaitza kaskarrak espero izatekoak ziren".

JUNKAL ARRUTI
EQUO

"Pozik gaude gure emaitzekin. Alternatiba bat aurkeztea lortu dugu pertsonak eta ekologia aurrean ipiniz. Hauteskunde hauetan baina herritarrak, ekologia, etorkinak, emakumeak eta homosexualak atera dira galtzen".



Jakiundeko jakintsuak, Martin Garitano Ahaldu Nagusia, Jesus Elortza Bergarako alkatea eta Jose Luis Elkorro, udaletxeko eskaileretan. | JAKIUNDE

Jakiunde akademiak Bergaran egin du lehenengoz osoko bilkura

Olaso dorrea izango da euren egoitza, eta aurrerantzean bertan egingo dituzte

IRATI GOITIA | BERGARA

Jakiunde, Zientzia, Arte eta Letren akademiak Bergaran egin zuten egubakoitzean osoko bilkura, udaletxeko pleno aretoan. Bertan izan ziren Jakiunde osatzen duten jakintsuak eta baita Martin Garitano Ahaldu Nagusia eta Jesus Elortza alkatea, besteak beste.

Pedro Miguel Etxenike Jakiundeko lehendakariak eman zion

bilkurari hasiera eta adierazi zuten Jakiunde instituzioak urrats garrantzitsua eman duela Bergaran bere egoitza ezarrita, Olaso dorrean. Etxenikek Bergararen iragana gogoratu zuten bere hitzaldian. Esan zuten Bergara Euskal Herriko herri garrantzitsuenetarikoa izan zela, Peñafloidako kondeak bertan ezarri zuten Errege Seminarioari esker. Gainera-

tu zuten ezinbestekoa dela Bergara berriz zientziaren eta jakinduriaren mapan kokatzea.

Elkarlana beharrezkoa

Olaso Fundazioaren eta Jakiunderen arteko elkarlana bultzatzea ezinbestekoa dela adierazi zuten Etxenikek, eta, hala, bereziki eskertu nahi izan zituzten osoko bilkuren aretoan zegoen Jose

Luis Elkororen lankidetzeta, gogoia eta jarrera.

Bestalde, Martin Garitanori esan zion, Jakiunden ziur dardela akademia bere gurasoek Olaso dorrea zaindu zuten maitasun eta eraginkortasun berarekin zainduko duela. Izan ere, Garitanoren senideak Olaso dorreko zaindariak izan ziren. Horri erantzunez, Garitanok esan zion berarentzat ohorea dela bere jaiotetxea Jakiunderen egoitza izatea, eta gaineratu badakiela jakintsuek asmatuko dutela Olaso dorrea zaintzen, bere gurasoek asmatu zuten bezala.

Bilkuraren ostean, bisita gidatua egin zuten herriko eraikin garrantzitsuenak ikusteko; tartean, Olaso dorrea ezagutu zuten.

Zero Zabor: "PSOEk eginiko kanpaina zikina onartezina da"

I.G. | OÑATI

Oñatiko eta Arrasateko Zero Zabor taldeetako kideek prentsaurrekoa egin zuten egubakoitzean, alderdi sozialistak debagoiendarron buzoietan banatu duen panfletoan jarritakoak salatuz. Hala, adierazi zuten: "PSOEk, boto batzuk eskuratzeko asmoz, atez atekoaren aurka egin, eta demagogia eta gezurrak erabili ditu. Gipuzkoarren osasunarekin eta diruarekin jokatu egingo duen kanpaina zikin hau ez dugu inondik inora onartuko". Gaineratu zuten alderdi sozialistak proposatzen duen bosgarren edukiontzia ez dela erraustegi eta zabortegien arazoaren irtenbidea, eta alternatibak proposatu beharrean, arazo berriak sortzen dituela erraustegia bezalako proiektuak bultzatuz.



Zero Zaborreko kideak. | J. CALLEJA



MARI KARMEN GALLASTEGI
BERGARA

"Oso pozik nago. Leku zoragarrian jarri digute egoitza eta gainera nire herrian. Orain, gehiagotan etorriko naiz Bergarara. Osoko bilkura oso ondo joan da, gauza berri asko egiten gabiltzala konturatu gara eta hori ona da".



JABIER RETEGI
BERGARA

"Jakiunderendako ohore handia da Bergaran izatea egoitza eta baita Bergararendako akademia herrian izatea. Erabaki asko hartu ditugu bilkuran; adibidez, hurrengo urteetan zein arlo jorratu eta krisiari nola aurre egin".



JESUS UGALDE
BERGARA

"Orain, Jakiundekook bergararrak ere bagara, neurri batean edo bestean. Espero dugu udaberriko batzar orokorra Olason egitea. Datozen bost-sei urteetarako ildo estrategikoa finkatu dugu atzo eta gaur eginiko bileretan, lan bikaina".



ITZIAR ASTIASARAN
ARETXABALETA

"Oso pozik gaude, izan ere, gure akademiak urte dezente daramatza lanean, baina oraindik ez genuen egoitzarik eta horrelako jauregi zoragarria izateak, guztiok poztu gaitu. Gainera niri ilusio berezia egiten dit bailaran izanik".

Bikain ziurtagiria jasoko dute Arrasateko Udalak eta Coprecik

Gipuzkoako Foru Aldundia izango da ziurtagiri hori jasoko duen beste erakunde bat. Guztira, 18 erakundek jasoko dute aurten Eusko Jaurlaritzak eta Euskalit Fundazioak banatzen duten Euskararen Kalitate ziurtagiria. Azaroaren 30ean banatuko dituzte ziurtagiriak Bilboko Guggenheim museon.

Bilbao

Gran Vía 19
Plaza Barria 2

Tolosa

Kale Nagusia 21-23


Gasteiz

Foruak 12

Iruña

Arrieta 7

skunkfunk





Ordenagailuarekin kontrola dezake pazienteak teknologia guztia. | AMAIA TXINTXURRETA



Komuna egokituta dago. | A.T.

Garuneko mina dutenek erabiltzeko etxebizitza

Aita Menni Ospitalean etxebizitza domotikoa ipini dute, pazienteek probatzeko eta entrenatzeko

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Etxebizitza domotikoa ipini dute Arrasateko Aita Menni ospitalean. Garuneko mina duten gaixoen- dako eginda dago, baina ictusa edo parkinsona dutenek edo eda- detuek ere erabil dezakete. Pazi- entek eta familiakoek teknologia probatu ditzakete, han entrenatu,

eta teknologia horiek norbere etxean ipini. Olatz Uriarte Aita Menniko Garuneko Lesioen koo- dinatzailearen esanetan, "helbu- rua da paziente ahalik eta auto- nomoen izaten saiatzea". Horre- gatik, etxebizitza osoa pazientea bere kabuz ibili ahal izateko egin- da dago.

Norberak mugitzeko ohea

Arkitektonikoki, parea gutxi ditu eta hiru ate mota: motorduna, irristagarria eta motordun irr- istagarria. Denak pazienteak ireki ditzake kontrolarekin edo orde- nagailuz. Ohea ere egokituta dago eta norberak mugitu dezake alde batera edo bestera, postura edo

zaintzailearen lana errazteko, eta ohean jesartzeko.

Logela komunaren ondoan dago, pazienteak ohetik garabi bidez zuzen- zuzen joan ahal izateko. Gela guz- tiak erruberadun jesarlekuarekin ibiltzeko modukoak dira, eta altza- riak, argien etengailuak... dena eskura dago.

Sukaldean, egokitutako tres- nak daude eta denak esku baka- rrekin erabil daitezke: adibidez, patatak zuritzeko erretilua, poteak irekitzeko gailua edo arraska.

Kokotsarekin kontrolatzeko

Etxebizitzako teknologia guztia ordenagailu bakar batekin koo- ntrola dezake pazienteek berak. Horretarako, tableta erako bi ordenagailu daude. Aukera dai- tezke ere *joystick* erako kontrolak edo kokotsarekin erabiltzekoak.

Kapitala bueltatzeko epeak ipiniko ditu Eroskik

L.K. | ARRASATE

Erretiroa hartzen duten Eroski Taldeko bazkideei kapitala itzultzeko epeak zehazteko akordioa badago taldean, bai- na oraindik proposamenak egin daitezke gai horren inguru- an. Baina badirudi aldake- tak izango direla, izan ere, Eroski Taldearen arabera, "beste kooperatibek bezala, Eroskik ere neurriak hartu beharko ditu, izan ere, urtetik urtera gero eta erretiratu gehiago daude, eta zentzuzko gauza ematen du".

Epe hauek proposatzen dira: bazkidea hil ondoren, berehala bueltatzen da haren kapitala; bazkideak erretiroa hartzen badu, 2013tik aurrera, bi urtean; eta borondatez baz- kidetzan baja eskatzen due- nari bost urteko epean buel- tatuko diote kapitala.

Aldi baten, %95

Oraingoz, Eroski Taldeko bazkideek aldi baten jasotzen dute bueltan kapitalaren %95, eta gainerako %5a bakarrik geratzen zaio jasotzeko.

Eroski Taldeak 8.600 baz- kide inguru ditu.



Ohea eta, gainean, garabia. | A.T.



Zartagina. | A.T.



Esku batekin erabiltzeko: patatak zuritzeko platera, poto-irekigailua... | A.T.

Arratsalde ere zerbitzua ematen hasi da Lanbide

A.T./L.K. | ARRASATE

Joan den asteaz geroztik, arra- tsaldez ere zabalik dago Lan- bideren bulegoa, Arrasaten. Arratsaldez joan nahi dutenek alde aurretik hitzordua egin behar dute. Horrenbestez, ordutegi hau dute orain: aste- lehenetik eguenera, 09:00eta- tik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara, eta egubakoitzetan, 09:00etatik 14:00etara eta 16:15e- tik 20:00etara.

Euskal Autonomia Erkide- goko Lanbide sareko bulego guztiek dute ordutegi berri hori. Neurri horrekin, Enplegu Sailaren helburua da jarraipe- na egitea lan barik dauden eskatzaileei. Horretarako, orien- tatzaileen eta administrazio langileen lantaldea indartzen dabil Lanbide, eta Arrasateko bulegoan beste orientatzaile bat eta beste bi administrazio langile daude orain.

Pertsonalizatua

Orientatzaileen figura bere- ziki indartu gura du Lanbidek. Horien zeregina da hala nahi duten langabeei arreta per- sonalizatua ematea.

Txema Gisasola, Mondragon korporazioko hurrengo lehendakaria

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Fagor Etxetresnak Taldeko egun- go zuzendari orokorrak hartuko du Jose Maria Aldekoaren lekua 2012ko uztailaren 1ean -Aldekoak orduan hartuko du erretiroa-. Hala erabaki du Mondragoneko Kongresu Kooperatiboaren Batzor- de Iraunkorrak.

1962an Zumarragan jaioa, Gisolak Mondragon Korpora- zioako Etxe Dibisioan gaur egun duen lehendakariorde zereginekin batera beteko ditu Kontseilu Oro- korreko lehendakariari dagoz- kionak ere.

Txema Gisasola 1987an hasi zen lanean Fagor Etxetresnetan,



Txema Gisasola. | GOIENA

kooperatibako antolaketa tekni- kari eta pertsonal buru. Hainbat kargu izan ditu ordutik; 2006an Mondragoneko lehendakari izen- datu zuten, adibidez.

Konfekoop-en ekintza nagusietako bat Oñatin, 2012an

Nazio Batuen Erakundeak Kooperatiben Nazioarteko Urtea izendatu du 2012a, eta urte horrekin bat egin du Kon- fekoop-ek, Euskadiko Koope- ratiben Konfederazioak. Urte osoan 20 ekintza egingo dituzte, eta nagusietako bat Oñatin izango da: Gizarte Ekonomia- ren Ikerlarien jardunaldia, hain zuzen ere.

Kooperatiben eragin sozio- ekonomikoa euskal jendar- teari ezagutzera ematea eta kooperatiben sorrera eta haz- kunde autonomoa sustatzea izango dira Konfekoop-en programaren helburuak. Dato- rren urtean jakinaraziko dute programa osoa.

Zientziaren Astea ospatuko dute gaurtik unibertsitatean

Zientzia gizartera hurbiltzea da eguaztena bitartean MUren Garaia kanpusean egingo dituzten ekintzen helburua. Egunitan, MUren partaidetzaz egin den automobil elektrikoa aurkeztuko dute, eta hiru laborategitara bisitak egongo dira: energiakora, telekomu- nikazio eta elektronikakora eta konformazio eta mekani- zaziokora. Esperimentuak egingo dituzte hauetan.

Goizeko 10:00etatik 12:00e- tara izango dira jardunaldiak, nahi duen orori zuzenduta. Aurrez aipatutakoez gain, Kimikari eta Ingeniaritzari buruzko erakusketa ibiltaria ere egongo da ikusgai.

Xabi Otero | Jauzarrea Fundazioko arduraduna

"Euskaldunok nortzuk garen eta nondik gatozen argi utzi nahi dugu"

- ▶ Hizkuntzalarien iritziz, protoeuskara Europako lehenengo hizkuntza izan zen
- ▶ Euskaldunon historia "garbi" kontatuko duen liburua argitaratuko dute datorren urtean

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Euskal Herriko ondare kulturala eta historikoa aztergai duen Jauzarrea Fundazioko kidea da Xabi Otero (1953, San Adrian, Nafarroa). Argitalpen batetik bestera, Fundazioa, Otero buru duela, euskaldunek munduan barrera duten lotura genetikoak aztertzeko proiektua garatzen hasi zen duela urte batzuk. Proiektua oraindik amaituta ez badago ere, adituak batu eta ondorio orokor batzuetara ailegatu da Jauzarrea: litekeena da euskaldunak Europako lehen-dabiziko biztanleak izatea.

Nola hasi zineten euskaldunen leinua aztertzen? Zerk piztu zizuen interesa?

40 urte daramatzat Euskal Herriko ondare kulturala biltzeko lanetan. Bai argazkilaritzaren alorrean, baita liburuen diseinuan eta argitalpenean ere. Urte hauek guztietan jende asko ezagutu dut. Duela hamar bat urte konturatu nintzen euskaldunon historian zer edo zer falta zela. Historia ez zegoela osatuta. Horrela, sakabanatuta zegoen informazioa jasotzen hasteko proposamena egin nuen eta lanean hasi ginen. Zegoen informazio guztia bildu eta argitalpen baten biltzeko lanei ekin genien. Ideia honen inguruan mundu osoko 300 bat lagun elkartu ditut. Haiek egindako ikerketetan jasotako ondorioekin eta guk batutako informazioarekin, euskaldunak zer izan garen eta zer garen azaltzen saiatzen ari gara. Kontestu horretan, hipotesi berriak mahairatzea eta horien gainean eztabaidatzea proposatzen dut nik.

Baina egia da euskaldunok Europako lehenengo biztanleak izan gara?

Antropologo eta genetistekin hitz egin eta gero, euskaldunok lehenengo aldiz Europara etorri ziren homo sapiens espeziekoen leinua daukagula ondorioztatu dugu. Duela 45.000 urte homo sapiens espezieak Europara migratu zuen, Asia erdialdetik, eta migratu zuen talde hori Frantziako hegoaldean, Pirinioetan, Asturiasen eta lurralde honetan kokatu zen. Neanderthalak ere hor bizi ziren. Dirudienez, zientzialarien iritziz, hasierako biztanle haiek beste giza espezie berri bat bezala ezagutzera heldu ziren: Cro-Magnonak. Mendeetan Europako gune honetan elkarbizitzen eman eta gero, Glaziazio Aroa heldu zen. Ordura arte sakabanatuta bizi



Xabi Otero, Arrasateko Kulturateko sarreran. | TXOMIN MADINA

ziren gizaki espezie haiek Bizkaiako Golkoan elkartu ziren, bizirik irauteko. Glaziazio Aroa amaitzean, biztanleria handitzen joan zen eta izotza desagertu ahala lurraldeak okupatzen hasi ziren; zabaltzen joan ziren. Horrela, Gales eta Erresuma Batuko hasierako biztanleek lotura zuzena dute euskaldunekin. Hori guztiori 2005-2006 urte aldera argitaratu zen eta orain arte kontatu den historia berridatzi beharra ekarri du. Hizkuntzalariak ere protoeuskara izeneko hizkuntza Europako lehenengo hizkuntza izan zela ziurtatu dute.

Baieztape hori Unescok ontzat ematen badu, zer onura ekarriko digu euskaldunoi?

Guk, proiektu hau proposatzera-koan, lehenengo eta behin gure kolaboratzaile guztien babesa

"Euskaldunon historia osatzeke zegoelako hasi nintzen ikertzen"

"Hasi baten, Euskal Herriarekin lotutako edozer gutxietsi egiten da"

bilatu dugu. Ikerlari bakoitzak, modu espontaneoan, adituek jasotako ondorioak eta guk batutakoak baieztatzea nahi izan dugu. Eta dagoeneko batzuk hasi dira gure hipotesiak babesten. Protoeuskara bera Europako lehenengo hizkuntza izan zela onartzen bada, Unescok gizon-emakumeen ondare moduan onartu beharko du euskara bera. Prestigioa irabaziko genuke.

Informazio hori zergatik ez da orain arte bistaratu?

Gaur egun gure gizarteak funtzionatzen duen moduan, oso zaila da medioen arreta erakarri eta ikerketa baten ondorioak argitaratzea. Ondorio horiek ezin dira lau lerrotan argitaratu, zabal agertu behar dute, eta, zoritxarrez, gaur egun hedabideetan ez dago horretarako lekurik. Gai hau mundu guztia erantzuten da interesgarria, baina, hasiera baten, gutxiri interesatzen zaie. Hasi baten, Euskal Herriarekin lotuta dagoen edozer gutxietsi egiten da. Guk ez dugu uste euskaldunok bereziak garenik, baina zer garen gorde nahi dugu.

Orain arte, beraz, gure historiari dagokionez, ezjakinak izan gara.

Zorionez, Euskal Herriaren gizarte alorra lantzen dutenak asko dira. Guk alor historikoa landu eta garbi utzi nahi dugu, biztanleria guztiak erraz ezagutzeko nortzuk garen eta nondik gatozen.

Irailen Tras la estela de los balle-

neros vascos nazioarteko kongresua egin zenuen. Ze ondorio atera zenuen?

Nire asmoa euskaldunek mundu osoan zehar duten leinuak detektatzea zen. Guztira, Kanadako eta Europako hamabi hizlari ekarri genituen. Haiei geneukan proiektuaren funtsa azaldu genien eta euren laguntza, babesa, eskatu genien. Eta lortu egin dugu. Orain haiek ere proiektuan barneratuta daude. Kongresuan ezagutzen duguna baino askoz material gehiago dagoela ikusi dugu.

Hasiera baten, zeuden galderei erantzuteko zen kongresua. Ikusten dudanez, galdera gehiago sortu ziren.

Egia da. Hizkuntzaren alorrean, esaterako, identifikatu gabeko hitz berriak agertu ziren gure arteko elkarriketetan. Ikertzen

"Datorren urtean nobedadez betetako lana argitaratu ahal izango dugu"

"Euskaldunok eta euskara Europako zaharrenak direla berretsi nahi dugu"

jarraitzeko medio gehiago dauden heinean, orduan eta gauza gehiago ateratzen dira.

Informazioa biltzeko lan horretan, zer izan da zailena edo harrigarriena?

Lan honetan zailena jendea konbentzitzea da. Ezagutzen zaituztenak laguntzeko erraz konbentzitzen dituzu, baina ezagutzen ez dituzunei proiektua saldu egin behar diezu. Komertzial baten lana bezala da. Niri, saltzeko modu hori gogorra egiten zait. Baina egin egin behar da.

Erakundeen babesa faltan sumatzen duzu?

Hasiera baten, proiektu honek autonomia izan behar zuen. Eta orain ere horrela da. Ez dugu nahi erakundeekin lotura eta konpromiso zehatzik hartu. Erakunde ofizialak tartean sartzen direnean interesak agertzen dira eta horrek ikerketa kutsatzen du. Gu orain ikerketak bideratzeko askeak gara eta hori eskertu egiten da. Behin lana eginda dagoela, orduan joko dugu erakundee-tara.

Zer da eta zertan datza Oreina Urkian Kanata?

Gure proiektu osoa Jauzarrea da. Hiru hitz horiek euskaldunek Kanadan duten leinua aztertzeko proiektua biribiltzen dute. Hitz horien arrazoia ondokoa da: *Oreina* hitza oraindik haiek erabiltzen dute. Gure logoa oreina agertzen da, urkiz betetako baso bat atzean duela. *Urkia* Kanadakoek asko erabiltzen duten materiala da eta oreina beti dago urki artean, horregatik sartu dugu hitz hori, eurentzat esanguratsua delako. Eta *Kanata* hitza euren lurraldearen jatorrizko izena da.

Aurrera begira zer geratzen zaizue egiteko?

Informazioa biltzen jarraitzeko beste lau kongresu geratzen zaizkigu, urtaro bakoitzean bat. Lan guztia egiten dugunean, espero dugu datorren urterako prest egongo dela, dena batu eta nobedadez betetako lana argitaratzeko moduan egongo gara.

Azkenean, "euskaldunak leku guztietan daude" esaera egia izango da?

Ba bai. Barandiaranetik hasi eta haratago joanda, kondairek esaten dutena, euskaldunok eta euskara Europako zaharrenak direla, egia da eta hori guztia berretsi nahian gabilta, adituen ikerketak jaso eta batuaz.

Zuhurrenen aurrezkia



**EDREDOI
NORDIKOA
PRIVATA**

1.200 €
epea:urtebete
U.T.B.: %1,97

Zuk ere heldu bere etxeaz gozaten dutenen interesari.

Badator hotzaren eta euriaren garaia; badator etxeko epeltasunaz, etxeko otorduez, erosotasunik handienaz gozatzeko garaia... eta zure aurrezkiei egunero etekinik handiena ateratzeko unea.

Aukera ezazu gogokoena ohiko bulegoan, Telekutzako 901 333 555 telefonora deituz, kutxa.net-en edo **kutxaren** kutxazainetan.



kutxa
Zugandik Zugana

ZABALIK

DIEGO MARTIARTU
http://goiena.net/iritzia/



'Виктор Александрович'

Aro bat bukatu ei dela-eta, atzerako ispilitik begira jarri naiz ni ere, gatzeko estatua bihurtzeko beldur barik: Sodoma eta Gomorratik gutxi-gutxiegi aukeran-gibelean utzi berri dugun garaian. Oroimenean duela 25 bat urte gordetako artxibo maiztuetan araka nabil eta gauza interesgarri askoak aurkitu ditut, ez bakarrik gatazkarekin lotutakoak, baita bestelakoak ere. Horien artean bat, 80ko hamarkadako Sobiet Batasuneko saskibaloit taldea: Sabonis, Volkov, Tkachenko, Belosteny, Sergei Tarakanov, Jovaisa, Kurtinaitis, Valdemaras Chomicius, Valeri Tikhonenko... eta denen artean zirrararik handiena eragin didana, Viktor Pankraxkin: 2 m 14 cm-ko tantaia, ilaje koipetsua buruan, tripazorro ederra agerian, bibote beltz ilesarria. Zatarra aurgiz zein gorpuzkeraz, moldagaitza takarradan, akabera bako tristura haren begi-putzuetan.

"Pankraxkin ez zen mundu honetarako jaio; ez ba"



Sabonis eta Tkachenko erraldoen ostean erdi-egkutan, taldean nabarmentzeko inolako anbizio barik, Pankraxkin zientoka txapel jartzen ikusia naiz ene begiok. Erasora jotzen zuenean, berriz, ikustekoa zen zelan kokatzen zen isil-isilik pistaren izkina-izkinan, baloia uso bat balitz bezala eskuetan hartu eta ezti-ezti jaurtitzeko: ttak, barrura; eta hurrengoan ere berdin: ttak, barrura...

Eliteko kirolari bati dagozkion tasun fisikoetatik bat ere eduki barik, bere-bereak zituen dohainei esker ibili zen saskibaloiarean gailurrean hainbat urtean. Gertuago zegoen jainko mundutik gizakienetik baino, Cristiano Ronaldo gizatasunetik baino okela pikatzeko robot batetik gertuago dagoen bezala.

Wikipedian jakin dut Pankraxkinen berri. Ez nau ustekabeen harrapatu: hirukoak uztaian sartzen bezain abila ei zen partida aurretik vodka botilak hirunaka trinkatzen, eta 1993an hil zen, zeharo jareginda, 36 urterekin. Ez zen mundu honetarako jaio. Edozelan ere, zauden lekuan zaudela, *spasiba*, Viktor Pankraxkin.

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

Santutxukoa dela eta

Santutxuko gertakariak luze jardun dute hedabideek. Denok jakingo duzue, adibidez, hiltzailea ze naziotasunduna den. Eta hasi da jendea sareko foroetan-eta berba egiten atzerritarren inguruko legeez-eta, etorkinei buruz eta beste. Hori egin duena gaixoa bada, ze inporta dio batekoa edo bestekoa den? Eta gaixoa ez bada eta gorrotoren batek jota jardun badu -eta kasu honetan ez bada beste batean izango da- pentsatu beharko genuke -eta inongo indarkeriarik justifikatu nahirik gabe diot-, are arma suntsitzaileagoak eskuan, munduan egiten eta eragiten ditugun gehiegikerien eta desoreken ondoriozko *kalte kolateral* izan daitezkeela.

KALE INKESTA

2012a bertan dago; egutegi bat egiteko biluztuko zinake?



LOLA ARRASATE
ARRASATE

"Ni ez, ni ez nintzateke biluztuko. Hori gazteagoek egin dezakete, baina ni nire adinarekin ez naiz hori egitera ausartzen".



MANU ARANBURU
ARAMAIO

"Nik ez dut egutegi baten erakusteko moduko gorputzik. Ondo iruditzen zait jendeak hori egitea, baina ni ez nintzateke irtengo".



VISI GARZIA
ARRASATE

"Nire adinekoek egingo balute eta guztiz biluztu beharrik ez balego, akaso; betiere, kausa onengatik, nire gorputzagatik ez didate-eta dirurik emango".



JIAN CHEN
ARRASATE

"Nik motibo on batengatik agian egingo nuke, baina galtzontzilotan, inola ere ez erabat biluzik, ez nintzateke ausartuko".

HANDIK ETA HEMENDIK

Lanorduak arrazionalizatzen

Mikel Larreategi
http://eibar.org/blogak/erral/

Azkenaldian modan dago lanorduak arrazionalizatu behar direla esatea. Espainia mailan "Comisión para la Racionalización de Horarios en España" izen ponpoxoa duen batzorde bat ere badago.

Lanordu flexiblek ezartzeko plan bat aurkeztu zuen Jaurlaritzak, eta plan hori enpresa batzuetan ezarri eta hor dabilza Euskaltel, Guggenheim edo *Diario Vasco* sariak jaso eta hitzaldiak ematen. Enpresa txikiagoak ez dira eredu hobeak gizartearentzat kasu honetan?

Honi buruz hitz egiten denean, *kranding* hitza datorkit burura.

Dani lankideak erabiltzen du hitz hori gauza bati buruz hitz egin eta hitz egin eta ezer esan ez arren, asko esan eta egin dela erakutsi nahi denean.

Gure lantokian ordutegi flexiblea dugu. Ez gara Euskaltel eta *Diario Vasco*.

Ez da etorri Jaurlaritza plan batekin.

Eta horregatik ez digute dirulaguntza estrarrik emango.

Eta ez gaude egunero egunkarietan horri buruz hizketan.

Ah, eta lanordu hori ez dugu orain dela aste batzuetatik, ni 2003an lehenengo aldiz sartu nintzenetik bai behintzat!

Asko eskertzen den eta guztiok eskertzen dugun flexibilitate horrek uzten digu lanaldia gure erara antolatzen (parametro komun batzuen barruan noski), eta antolaketa horrek uzten digu gaur bilera baterako lehenxeago irten edo goizerdian jestio bat egiteko irteten, edo bazkalorduak murrizteak uzten digu arratsaldean lehenago irteten.

Eta ni gehienetan 17:30ean irteten naiz bulegotik. [...]

Nik pertsonalki nahiago dut goizean goiz lanera joatea eta arratsaldean denbora gehiago edukitzea beste gauza batzuk egiteko: erosketak egin, buelta bat eman, kiroldegira joan edo beste lan batzuk egiteko.

19:00etan lanetik irten? Ez mesedez.

Eta horretan flexibilitateak asko laguntzen digu CSn, norbaitek nahi badu 19:00ak arte lan egin baitezake, goizean behar baldin baditu orduak bere familia-lanak-edo egiteko. [...]

Lurrikaratxoa

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Irakurle zorrotz batekin solasean. Asko baino areago, sakon irakurtzea gustatzen omen zaio. "Sendoago egingo nauten libururak bilatzen ditut". Irakurketak dirauen bitartean, bere baitako lurrikaratxo bat sentitzea gustatzen zaio: bizitzari buruzko pertzepzioa aldatu eta zorrotz zaiola. Presarik gabe ibiltzen da lerrotik lerrora, ez zaio hitzen musikarik gabeko edukirik gustatzen, ezta edukirik gabeko musikarik ere. Biak ondo uztartuta eskaintzen dituzten lanak direla benetako literatura; edukia baino eskaintzen ez duena, propaganda iruditzen omen zaio; musika hutsak, berriz, ez omen dio irakurketak irauten duen bitarteko gozoa beste deus ematen.

Solaskideak ez baitzidan ez autorerik ez libururik aipatzen, Bernard Pivot eragile kultural frantsesak orain gutxi esandakoa nerabilen kabutan: "Inoiz ez da hainbeste hitz egin liburuez, hain gutxi ere ez literaturaz". Esateke neukan: solaskidea emakumea nuen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendaria nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitate)

Asteburuko edizio arduraduna Julen Iriondo
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lego Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

ANTZUOLA

Sagardotegira edo dendara joan barik, sagardoa, etxean bertan

- ▶ Antzuolako hainbat baserritan, bertan jasotako sagarrekin egiten dute sagardoa
- ▶ Saltzeko baino, oparitzeko, banatzeko edo egunerokoan edateko ekoizten dute

TXOMIN MADINA | ANTZUOLA

Hilabete eta erdi falta da gutxienez sagardo denboraldia hasi eta milaka degaboiendarrek sagardotegietarako prozesioari ekiteko. Baina badira gurean sagarretik ateratzen den ardoa edateko urruti joan behar izaten ez dutenik: sagardoa euren baserrietan egiten dutenak. Eta ez saltzeko, etxean bertan edateko baizik. Antzuolan hainbat baserritan dute ohitura hori eta hiruren esperientziak jaso ditugu: Bidaurre, Ugarte Torre eta Bizkalatzakoak.

Berreskuratutako ohitura

Bizkalatzen dagoeneko kupeletan dute hilabete batzuk barru sagardoa izango dena. Bertako Josu Odriozolaren arabera, baserrian betidanik egin dute sagardoa, baina denborarekin ohitura galdu zuten. Duela hiruzpalau urte baina, sagardoa egiteko beharrezko tresneria guztia etxean zutela aprobetxatuz, berriz ere ekin zioten sagardoa egiteari.

Aurten erabili duten sagarra ez da euren lursailen fruitua, kanpotik ekarri egin behar izan dute. "Urtero egiten dugu sagardoa, baina horretarako sagarra bi urtean behin izaten dugu. Aurten ez da horrela izan, eta kanpotik ekarri dugu" dio Bizkalatzakoak.

Sagarra jaso, garbitu, prentsatu, ateratako zukua kupelean sartu eta fermentatzen utzi; hori da, Odriozolaren esanetan, prozesua. Dena den, badute trukerik: arazorik ez egoteko, legamia eransten diote tarteka. Kupeletan dago aurtengo sagardoa, eta han egongo da martxoa inguruan botilatan sartu arte. Hiru familiak elkarlanean egiten dituzte lan guztiak, eta hiruren artean banatuko dituzte espero dituzten 500 litro sagardoa. Giro onean ibiltzen omen dira sagardoa egiteko lanetan: "Sortzen den giroa egatik ez balitz, ez genuke egingo" diosku Odriozolak.

Nolakoa da Bizkalatzako sagardoa? "Batuetan ona, eta beste batuetan arazoak egoten dira; baina, tira, etxekoa denez, edan egiten da", da Josu Odriozolaren erantzuna. Ez omen du sagardotegietara joateko ohitura askorik; baina gustatzen zaio



1. Sagarrak beti lurretik hartu eta atsedean hartzen utzi.



2. Pare bat asteren ostean, txikitu egiten dira.



3. Behin txikitutakoan, dolarean sartzen dira.



4. Dolarean indarra erakusteko garaia da.



5. Ateratzen den zukua kupeletan sartzen da.



6. Sagarra atsedean hartzen utzi eta berriz ere dolarrera.

Sagarrak batzetik prest egon arte, hainbat pauso izaten ditu sagardoa ekoizteko prozesuak. | GOIENA

joatea, ikasteko aukera izaten duelako. Ez da sagardoa Bizkalatzen etxean bertan egiten duten edari bakarria. Izan ere, sagardo txarrarekin edo sagarren soberrakinekin uxuala edo orujoa egiten dute; eta aurten, garagar-

doa eta ardoa etxean egitera ere animatu dira lehenengo aldiz.

Aurten, ez

Ugarte Torren, duela dozena bat urte inguru hasi ziren sagardoa egiten. "Aita-eta hasi ziren; pen-

tsatzen dut sagar gehiegi batu eta irteera emateko. Baserrian gainera, ez dugu tresneriarik eta Etxekonekoena erabiltzen dugu" kontatu digu bertako Xabier Legorburuk. Bi urtean behin jasotzen dituzte sagar nahikoa; aurten iaz-

koa edan beharko dute, izan ere urte txarra izan da sagarrarentzat. 1.200 litro atera zituzten iaz, hiru baserrietako sagarren emaitza.

Azken aldietan gainera, enologo baten laguntza izan dute, sagardoa hobetzeko elementuak (azukrea eta beste osagai kimiko batzuk) aholkatu dizkiena. "Azken honetan baina, ez dakit kalkuluak gaizki egin zituen edo gaizki ulertu genituen, baina bizia irten da oso sagardoa; lanak izan ditugu kortxoia eta berau eusteko albreak jartzten!" kontatu digu barrez Legorburuk. Dena den, etxean bertan egindakoa izateak plus bat ematen omen dio sagardoari eta dendetan eros daitekeen sagardoarekin alderatuta, igartzen omen da diferentzia. Bere esanetan gainera, oparitzeko orduan ere norberak egin izanaren balioa du.

Etxekoa nahiago

Ez da zaila Bidaurre baserriko Kontxi Izagirre azoketan sagarrak saltzen ikustea. Baina saltzeko ez ezik, sagardoa egiteko sagarrak ere ematen dituzte bere baserriko lursailek: errege-sagarrak, boskantoiak... Bidaurren ere, Ugarte Torren legez, ez dute zortetik izan aurtengo uztarekin, eta aurreko urteko sagardoarekin moldatu beharko dute. Ez da gutxi, joan den urtean 1.500 botila atera zituzten-eta. "Aurtengoa pasatzeko moduan gaude; gainera, esaten dute ardoak bezala hobetu egiten dela!" dio Izagirrek.

Bere esanetan, betidanik eza-gutu du sagardoa egiteko ohitura Bidaurren; baina inoiz saltzeko asmorik izan duten edo ez galde-tuta, Izagirrek dio ezetz, horretarako formalismo gehiegi eskatzen dituztela-eta. Dena den, etxean sagardoa edateko ohitura ez omen da garai batean bestekoa: "Lehen familietan, jatorduetan sagardoa edaten zen, orain ez hainbeste" dio Izagirrek. Urtero zapore bera lortzea zaila den arren, gozo-tanterako sagardoa da etxean gustukoaren. Eta etxeko sagardoaren edo sagardotegikoaren artean aukeratu beharko balu? Erantzuna argia da: "Nik neuk, etxekoa nahiago..."

ANTZUOLA

Patin gainean eta mokadutxo ederrekin independentzia ospatuz



Parte-hartzaileak azken ukietan. | JOSETXO ARANTZABAL

JON BEREZIBAR | ARRASATE
Berrikuntza eta I+G-aren garaian Antzuolako gazteak esperimentu berri batekin datoz ospakizunetan: *trikimonopatin* poteoa. Horrela ospatu zuten Independentzia Eguna zapatuan, egun

osoko festa batekin eta giro ederrean.


Pintxo lehiaketa

Pintxo lehiaketarekin hasi ziren lehenik, taldeka antolatu eta patata, arrautza, txanpinoi eta

urdaiazpikoarekin mokadutxoak eginaz. Poteo berezia ostean etorri zen, bazkaria gero eta arratsaldean jolasak. Eguna borobiltzeko kontzertua izan zuten Bilbotik etorritako Enkore taldearekin.



Parte-hartzaileen talde argazkia. | JOSETXO ARANTZABAL

**ITSASO AZKARGORTA**
ANTZUOLA

"Pintxo tipikoaren alde egin dugu guk apustu eta ikus beharko: patata-tortilla urdaiazpikoz betea eta *chatka* gainera ipini diogu. Koadrilakoak antolatu gara gure artean eta hementxe gaude. Giro ederra egon da".

**JOSE ETA ANDONI**
TXILE ETA ANTZUOLA

"Bexamela eta ondoak izango dira gure osagai izarrak. Bereziki itxurari emango diogu garrantzia. Gure helburua, baina, albokoei irabaztea da, koadrilakoak dira eta haiei aurrea hartzea gura dugu".

**ARIADNE ETA ANE**
ANTZUOLA

"Antolakuntzaz, gauzak prestatzeaz eta epaimahaia aukeratzeaz arduratu gara baina lana eta gero egun osoko festa daukagu Antzuolan. Bertako eta Bergarako jendea gerturatu da gaur".

BERGARA

Tostoi eta erreilenoak kiloka, txokolatetan bustiak

Dastatzea egon zen zapatu iluntzean herriko gozogileen eskutik, Munibe plaza

J.B. | ARRASATE

Gabon usain betekoa izan zen zapatu iluntzeko Munibe plazan. Erreileno, tostoi eta txokolate jana bat, bai turroi eta gabon-gozorik ere ez zen falta izan saltokietan. Herri gozozalea da Bergara eta horren frogara izan zen plazan kokatutako karpaxoan ipinitako mahaietan dastatzea hasi bezain laster jendez bete zirela. Txokolatea litroka eta tostoi eta erreilenoak kiloka. Afari-merienda primerakoa izan zuten herriko gozogileen kontura egindakoa.



Tostoiak banatu zituzten mahaiak. | JON BEREZIBAR

JOSUNE SAGASTUME
GOZOGILEA

"Harrituta nago etorri den jende kopuruarekin. Turroi, mazapan eta trufak asko gabilta saltzen. Nabari da Gabonak datozela".

HELENA AZPIAZU
GOZOGILEA

"Askok oraindik ere ohitura dute kanpora joatean Bergarako tostoi eta erreilenoak eramatekoa".

HAUTESKUNDE BIHARAMUNA

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA | HAUTESKUNDE BIHARAMUNA

AZAROAK 21, 19:45

ESPAÑIAKO
GORTEETARAKO
HAUTESKUNDEAK
2011

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena



Bertako eta sasoiko produktuak saltokietan. | JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE

Santamas aurreko azken azoka berezia egin zuten

Mendibitzu baserriko txahal okela pintxoak ere banatu zituzten Seber Altube plazan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Hurrengo azoka handia Santamasetakoa izango da Arrasaten eta hortaz, hileroko zapatuetako azkena egin dute asteburuan Seber Altube plazan.

Urteko azken azokan 10 saltoki egon ziren. Bertako baserri-tarrenez gain, Jesus Romero

sukaldariak ere lekua izan zuen azokan eta Aretxabaletako Mendibitzu baserriko txahal okela ekologikoarekin gertatutako pintxoak prestatu zituen. Alboan laguntzaile moduan izan zituen Hasierako Lanbide Prestakuntzako Sukaldaritza Moduluko ikasleak. Okela egin berriaren

usain gozoa zabaldu zen hortaz plaza guztian zehar, tentazioa ere zabalduz.

Antolatzaileak, pozik

Udaleko Enplegu Zerbitzua arduratzen da azokaren antolakuntzaz eta pozik daude hileroko egitasmoak daukan harrerarekin. Haien hitzetan "eskertzekoa da bertako eta sasoiko produktuen kontsumoaz herritarrok jabetu izana" eta gaineratzen dute "sumatzen" dela "gizarte mugimendu bat" badagoela "norabide horretan" eta "olatua izatera" heldzea espero dute, "garapen jasangarriaren" mesedetan.



LEINTZ-GATZAGA

ANAITZ ALVAREZ

Bi kilo eta erdiko onddoa

Zuhaitz eta orbel artean ezusteko ederra hartu zuen atzo Anaitz Alvarezen familiak. Leku zehatza ezin esan, sekretua da hori noski, baina Leintz-Gatzaga inguruetako basoetatik perretxiko bila zebiltzala argazkiko ale itzel horrekin egin zuten topo: bi kilo eta erdiko onddoa. Afari bat baino gehiago egiteko adinako generoa behintzat izango dute.



ESKORIATZA

ANDER MONEDERO

Bigarren eskuko azoka

Giro ederra eta berezia izan zuten domekan Eskoriatzako plazan bigarren eskuko azokan. Bigarren urtea da antolatzen dutena eta dagoeneko herritarrek ikasi dute bidea. Eskoriatzatik bai eta Arrasate, Getxo eta Atxondotik ere joandako jendeak ipini zituen saltokiak. Salmenta aldetik ere ondo joan zen eguna.

ZIENTZIA ASTEA

AZAROAK 21, 22 eta 23



ETORKIZUNERAKO PREST?

GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA
ESCUELA
POLITÉCNICA
SUPERIOR

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

theWeek
Astea lo
Semana

1 Etorriko zarella jakinarazi!

KONTAKTUA
bguerenu@mondragon.edu
943739629

Kontsultatu egitaraua:
www.mondragon.edu/eps

Udal aurrekontuak: ongizatea bermatu

2012ko aurrekontuak prestatzen bete-betean dabil Udala; gastu sozialak ez murriztea da lehentasuna

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eguaztenean Kulturaten egin zuten 2012rako aurrekontuen aurkezpenaren ostean, Iratxe Zeziaga Ogasun Saileko batzordeburuaren arabera, Uda-

laren aurrekontuetan, Aldundi-koetan moduan, gastu edo behar sozialak bermatu gura ditu Udala: "Sarrerak ditugunak dira, alde guztietatik dira urriagoak. Horregatik lehentasunak markatu behar dira eta Aldundiaren

planteamenduarekin bat eginez, arrasatearren ongizatea bermatzea izango da gure lehentasuna". Horrek, Zeziagaren arabera, inbertsioetan murriztea suposatzen du, adibidez: "Zenbait proiektu eta obra bertan behera geratu

beharko dira. Noski, ondo bideratuta eta martxan hasita dau-denak aurrera egingo dute".

Abenduko plenorako

Aurrekontuak zehazterako orduan herritarren parte-hartze zuzena bultzatzeko ekimenak begi onez ikusten ditu Zeziagak, baina denboraz gaizki ibili direnez, datorren urtean martxan jartzeko erabakia hartu dute.

Aurrekontuekin buru-belarri dabil lanean Udala. Batzorde bakoitzaren eskaerak jaso ostean, orain eskaerok aztertzen dabilza. Baina Zeziagak argi utzi gura izan du nondik murriztu daitekeen dabilzala erabakitzen. Asteon zehaztuta utzi gura dute behin-behineko aurrekontua eta gero beste alderdien iritzia jasoko dute. Izan ere, abenduko plenoan udalbatzak onartu beharko du 2012rako aurrekontua.

ESANAK



"Arrasatearren ongizatea bermatzea izango da lehentasuna"

"Zenbait proiektu eta obra bertan behera geratu beharko dira"

IRATXE ZEZIAGA | OGASUN ZINEGOTZIA

Lapurretan egin zuten Ferreriasko kebab jatetxean

J.B. | ARRASATE

Lapurrak sartu ziren eguen gauean Ferrerías kaleko kebab jatetxean. Ate ondoko leihoko kristala apurtu ostean sartu ziren barrura eta 400 euro inguru hartu zuten kutxatik. Horrez gain, tabako makina txiki bat ere eramane zuten, eta baita txanpon-makinako dirua ere. Erabat apurtu zuten makina dirua ateratzeko. Jatetxeko langile pakistandar batek adierazi duenez, lehen aldia da lapurreta bat pairatzen dutena. Bizilagun batek aditzera eman zenez, 04:00ak aldera zaratak entzun zituen etxe azpian, baina ez zuen ezer ikusi.

Salaketa jarri dute eta aseguru etxearekin jarri dira harremanetan. Ertzaintzak hasi du ikerketa.

OHARRAK

1955EAN JAIOTAKOAK

Azaroaren 26an egingo dute urteroko ospakizuna. Errioxako Briñas herriko upeltegi batera joango dira eta San Millar de la Cogolla herriko jatetxe baten bazkalduko dute. 09:00etan geratu dira Garibain. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da 3035 0202 79 2021039641 kontu korrante zenbakian.

1973AN JAIOTAKOAK

Abenduaren 3an Sara merenderuen bazkaria egingo dute. 14:30ean geratu dira Garibain. Izena emateko 45 euroko ordainketa egin behar da 3035 0055 12 0551053221 kontu korrante zenbakian, izena eta abizena kontzeptu moduan jarrita. Azken eguna da azaroaren 24a.

AZAROAREN 25A

Emakumeenganako indarke-riaren aurkako eguneko ekin-tzen berri emateko prentsau-rrekoa egongo da gaur Emakume txokoa (11:00).

Santamasetako kaleko salmentarako zerrenda gertu dago

Santamasetan kalez kaleko salmentarako postua eskatu duten titularren behin-behineko zerrenda atera du Udala. Behin-behineko titularrek, pleguan eskatzen diren agiri guztiak aurkezteko hamar eguneko epea izango dute. Azken eguna da azaroaren 30a. Argibide gehiago, Udala-ren webgunean: www.arrasate-mondragon.org.

Bedoña Baturen ardo, txakolin eta gazta dastatzea zapatuan

Bedoña Batu kultur elkartearen eskutik arabar Errioxako ardoa, txakolina eta Idiazabalgo gazta dastatzeko aukera egongo da zapatuan, hilak 25, Loramendi elkartearen (19:00). Azaroaren 18a zen izena emateko azken eguna, baina antolatzaileek jakinarazi dute oraindik badagoela lekua: 688 88 79 02.



Arrasate Musikaleko ikasleak entseatzen. | ARRASATE MUSIKAL

Arrasate Musikal, Santa Zezilia ospatzeko gertu

Bi kontzertu eskainiko dituzte: egubakoitzean Kulturaten eta domekan San Frantzisko elizan

J.B. | ARRASATE

Santa Zezilia eguna da bihar, azaroak 22. Eta urteroko ohitura jarraituz, Arrasate Musikalek ospakizun berezia egingo du. Ikasleek bi kontzertu egingo dituzte asteon, hilaren 25ean eta 27an.

Lehen kontzertua Kulturaten izango da, azaroaren 25ean, 18:30ean. Bakarlariek eta talde desberdinak ikusteko eta entzuteko aukera egongo da.

Eguraldi onarekin, plazan

Hala ere, hilaren 27a izango da egun handia. Egun horretan kontzertu berezia egingo dute. 1992tik hona lehena da eta printzipioz, San Frantzisko elizan izango da emanaldia. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, baina, eguraldiak laguntzen badu kontzertua Herriko plazan

egingo da, 13:00etan. Aurretik, 12:00etan hasita, kalejiran irten-go dira, herriko kaleak alaitzeko asmoz.

Sei pieza eta bost bakarlari

Sei pieza interpretatuko dituzte eta horietatik bostetan, bakarlari batek edo bik eramango dute piezaren pisua.

Bakarlari horien artean daude Markel Uribarren tronboi jolea (Rimsky Korsakov-en pieza), Enrike Dolara tuba jolea (Edritch Siebert), Xabier Markiegi bonbardino jolea (Joaquin Rodrigo), Aitor Aranburu klarinete jolea (Mikel Markiegi) eta, azkenik, Asier Goitia fliskorno jolea eta Jose Mari Barrutiabengoa tronboi jolea (Nat King Cole). Mikel Markiegi izango da zuzendaria.



ROMAN LOPEZ

Oroitzapenez bustitako mus txapelketa azaroaren 27an

Roman Lopez arrasatearra duela 16 urte hasi zen Arrasate eta Bergarako emakume talde bati musean jokatzen ikasteko klaseak ematen. 103 ikasle izan zituen Arrasaten eta 20 Bergaran. Urteurrena aitzaki, euredako mus txapelketa antolatu du. Azaroaren 27an izango da, Aldapen -batzokian-, 13:00etatik aurrera. Izena Aldapen eman daiteke; bihar da azken eguna. 32 bikote izango dira gehienez eta guztiendako opariak egongo dira.

Maialen Elizburu | Sexologia Zerbitzuko teknikaria

"Topasex sexualitatea jorratzeko topalekua da"

Herritarrek sexualitateaz izan dezaketen zalantzak argitzeko asmoz sortu dute foroa, eta baita proposamenak jasotzeko ere

X.U. / ARRASATE IRRATIA | ARRASATE
Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak Topasex foro birtuala jarri du udazken honetan abian, eta Sexologia Zerbitzuaren webgurutik iritsi gaitzke foro horretara (www.sexologiazerbitzua.com). Egitasmo horren gainean egin digu berba Maialen Elizburuk, sexologia bulegoko teknikaria.

Topasex foro berria. Zer da? Eta zertarako da?

Pentsatu dugu ondo egongo litza-tekeela halako espazio bat zabal-tzea herritarrek sexologiaren gainean zalantza eta kezka lasai galdetu ahal izateko. Horrekin batera, herritarrei galdetuko diegu euren eskuetan egongo balitz ze tailer antolatuko luketen edo zeren gainean egingo luketen berba gustura. Ondoren, guk proposamen horiek guztiak batu eta aztertuko ditugu, eta ikusiko dugu ea ze proposamen den bideragarria, aurrera eramateko modukoa.

Nori bideratuta dago Topasex?

Edonori zuzenduta dago, parte hartu nahi duten guztiendako. Sexologia Zerbitzua ez dago adin konkretu batera mugatua, eta ezta Topasex foroa ere

Hau da, erabiltzaileen proposamenak jasotzeko bidea ere bada Topasex foroa.

Hori da, asmoa da zubi bat zabal-tzea jakiteko zeintzuk diren jendearen ardurak, eta sexologia zerbitzutik antolatuta zer-nolako tailerrak nahi dituzten, esaterako. Proposamen horiek jasota eskaintza hobea egin dezakegula uste dugu. Foro bat izanda, bai-



Maialen Elizburu Gazte Bulegoaren parean. | XABIER URTZELAI

"Topasex edonori zuzenduta dago, parte hartu nahi duten guztiei"

na, harremana ez da alde bakarrekoa, hau da, ideiak, esperientziak elkartrukatzeko gune bat sortu nahi dugu

Dena dela, halako proposamenak zuzenean ere egin gaitzake sexo-

logia zerbitzuan. Errazagoa da Internet bidez?

Bai, sexuaz berba egiteko jendeak oraindik lotsa handia du, eta askoz ere errazagoa egiten zaigu denoi halako mezuak Internet bidez botatzea, edo bulegora etorri beharrean kontsultak telefonoz egitea. Dena dela, aprobetxatu nahiko nuke esateko Sexologia Zerbitzuko ateak zabal-zabalik daudela edonork dituen zalantzak argitzeko, arazoak kontatzeko...



Pilataseko saio bat. | GOIENA

Kirol osasuntsu-terapeutikoaren aldeko kanpaina jarri dute abian

X.U. | ARRASATE

AUKEAK kanpaina berri bat abiarazi du kirol osasuntsu-terapeutikoa egin nahi duten pertsonendako. Ikusi dute, baita ere, ikastaroetan parte-hartzen duten herritarren portzentaia handi bat gazte kirol-zaleak direla eta arrasatear asko daudela beste kirol mota bat egin nahi dutenak. Eskaera hori asetzeko jarri dute abian kirol-osasuntsu terapeutikoa.

Hala, kirol-osasuntsu terapeutikoaren barruan sartu dituzte Pilates, gimnasia terapeutikoa eta gimnasia hipopresiboa. Pilates pertsona gazte eta helduendako entrenamendu fisikoa da.

Ariketa horiek egiteko gimnasia, traumatologia eta yogako irizpideak hartzen dituzte kontutan.

Gimnasia terapeutikoa 60 urtetik gorakoendako dago zuzenduta, gimnasia arrunta gogorregia iruditzen zaienendako. Eta azkenik, gimnasia hipopresiboa ikastaroaren funtsa da ariketa zehatz batzuen bitartez zoru pelbikoa indartzea. Horretarako, baina, lehenago ikastaro txiki bat egingo dute aurrez, inoiz gimnasia hori egin ez dutenendako. Ikastaro horiek egun eta ordu konkretu batzuetan emango dituzte. Hala, 943 77 16 77 telefono zenbakian izango duzue informazio dena.

Split 77 taldeak joko du Kooltur Ostegunak barruan, Gaztetxean

GOIENA | ARRASATE

Datorren egunean, azaroak 24, Split 77 taldea izango da Arrasateko Gaztetxean, 22:00etan, Kooltur Ostegunen barruan.

Split 77 Bilboko taldea da, eta hastapenetatik 80ko hamarkadako post-punk eta elektronikaren aldeko apustua egin dute. Bere musikan oso presente daude The Cure, Joy Division, Bowie eta beste asko. Iluntasuna, energia, jarrera, gitarrak, teklatura... daude bere baitan. 2002an *Antenna*-rekin debutatu zuten, 2004an *Mentura* kalera-tu zuten eta gerora sei urteko isilunea egin zuten. 2010ean, baina, bueltan etorri ziren *Split*

77 izeneko diskoarekin. Ikusten da galdutako denbora berreskuratzea datozela kontzertuetan guztia ematen dutelako.



Split77 kontzertuan. | GOIENA

Abaroak gimnasia terapeutikoa eskaintzeko bilera informatiboa egingo du hilaren 22an, martitzenean

Abaroa erretiratu elkarteak jakinarazi duenez, gimnasia terapeutikoaren gaineko ikastaroa antolatzeko bilera informatzailea egingo du Etxaluzen, hilaren 22an, 19:00etan. Ikastaroaren gainean interesa duten bazkideak bulegoetatik pasa beharko dira aurrez: astelehenetik egunera, 18:00etatik 19:30era. Ikastaroa Arrasateko beste erretiratu elkarteetako bazkideei ere zabalik dago.

Uarkapeko tabernaren ustiapena kalera atera du Udalak; abenduak 5 da izena emateko azken eguna

Uarkapeko tabernaren ustiapena kalera atera du Arrasateko Udalak. Oinarriak udaletxean daude ikusgai, eta izena emateko azken eguna abenduaren 5a da. Ustiapen honetan ez dago alokairurik, eta horniduren kontsumoa ez da ordaindu behar, baina bestalde, tabernaren eta frontoiaren kudeaketa daude barruan.

Bertso afaria San Isidro elkartearen Musakolako jai batzordearen eskutik, hilaren 25ean

Musakolako jai batzordeak bertso afaria antolatu du San Isidro elkartearen azaroaren 25erako. Goi mailako bertsolariak gonbidatu dituzte auzora: Sustrai Colina eta Iker Zubeldia, hain justu. Gai jartzaile lanetan, berriz, Beñat Ugartetxeak jardungo du. Afaria 21:00etan hasiko dute eta afalostean hasiko dira bertsolariak bertsotan. Bertso afarira joan nahi duenak 20 euro ordaindu beharko ditu, eta Musakola auzoko Meneta, Ziorla eta Txinaito tabernetan dituzte sarrerak salgai.



Elkartasun zozketa

Euskal presoaren aldeko azken elkartasun zozketa egin zuten joan den egunean, Portaloian. Zenbaki saritua 436 izan da eta harategiko produktuez osatutako otzara ederra eraman zuen zenbaki horren jabeak. Datorren zozketa aste bi barru egingo dute, eta Portaloian bertan egongo dira errifak saltzen. Sariaren irabazleari, berriz, On egin!

Mizpirualdeko giroa alaitzeko asmoz, hainbat ekitaldi astean

Gaur egun Elgeta, Antzuola eta Bergarako 104 egoiliar daude egoitzan; batez besteko adina 84 urte da eta 100 urteko lau emakume daude

EDU MENDIBIL | BERGARA

Urteko sasoi honetan ohikoa denez, Mizpirualdeko astea ospatuko dute gaur, astelehena, hasi eta zapatara bitartean. Antolatutako ekitaldiekin helburu bikoitza lortu nahi dutela esan digu Alazne Irazabalek, Mizpirualdeko koordinatzaileak: "Bate-tik, Mizpirualdeko giroa alaitzea; eta, bestetik, herritarrak nolabait egoitzaren bizitzan inplikatzeko". Horretarako, egitarau zabala osatu dute eta Musika Eskolako taldeek protagonismo berezia izango dute astean zehar.

Boluntarioen lana

Antzuola, Elgeta eta Bergarako 104 egoiliar daude erresidentzian eta emakumeak dira nagusi (75). 109 lagunendako tokia dago. Momentuan libre dauden bost lekuak autonomoei zuzendutakoak dira, Udalaren esku daudenak, hain zuzen. Mendekotasun plazak 97 dira, Gipuzkoako Diputazioak gestionatzen dituenak. Ehun bat langilek dihardute Mizpirualden eta ezin da ahaztu boluntarioen lana. Antzuolatik, Nagusilantetik eta Elizatik 46 bat lagun joaten dira laguntza eskaintzera.

100 urte Gregoria Azkaratek

Mizpirualdeko egoiliarren batez besteko adina 84 urte da eta azpimarratzekoa da 100 urte beteta dituzten lau emakume direla tartean, laurak bergararrak: Angeles Bilbao, Felisa Larrañaga, Segunda Martinez eta Teo Ortuzar. Talde txo horretan sartuko da laster Gregoria Azkarate, azaroaren 28an 100 urte beteko baititu. Beraz, asteo ospakizunez gain, badute zer ospatu Mizpirualden.



Ehun langile eta 46 boluntario ari dira Mizpirualde egoitzan. | E.M.

EGITARAU

ASTELEHENA 21

17:00 Karta lehiaketa.

18:30 Musika Eskolako biolin eta saxofoi taldeen emanaldia egoitzako aretoan.

MARTITZENA 22

17:00 Toka eta igel lehiaketa.

18:30 Musika eskolako akordeoi taldea eta abesbatzaren emanaldia.

EGUAZTENA 23

17:00 Boloen lehiaketa eta urtebetetzeen opariaren banaketa.

18:30 Musika eskolako trikitilarien eta gitarra taldearen emanaldia.

EGUENA 24

17:00 Kora, arpa afrikarra.

18:30 Musika eskolako flauta eta txistu taldeen emanaldia.

EGUBAKOITZA 25

17:00 Lizarrako dultzaineroak.

18:30 Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia.

ZAPATUA 26

11:45 Jaunartzea abesbatzak girotua.

13:00 Bazkaria, Alai Taldearen emanaldia, dantza eta sarien banaketa.

OHARRAK

1939AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 26AN

1939an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute azaroaren 26an Pertxan, 14:30ean. Aurretik Frontoian batuko dira, 13:00etan. Izen-ematea ondoko telefono zenbakietan egin daiteke: 943 76 24 79 (Eulali Elgarresta) edo 943 76 28 58 (Pello Garitano).

1966KOEN HITZORDUA AZAROAREN 26AN

1966an jaiotako bergararrek afaria egingo dute azaroaren 26an. Batzokian afalduko dute, 22:00etan. Hala ere, 19:30ean elkartuko dira Ariznoa tabernan. Izen-ematea Ariznoa tabernan, azaroaren 7tik 24ra. 10 euro ordaindu behar dira fidantza moduan.

1945EKOAK HILAREN 26AN BATUKO DIRA

1945ean jaiotakoek afaria iragarri dute azaroaren 26rako. Azpeitxi jatetxean afalduko dute. Izen-ematea Azpeitxin bertan, 25 euro aurreratuta.

1967AN JAIOTAKOEN AFARIA ABENDUAREN 3AN

1967an jaiotako bergararren afaria abenduaren 3an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Euskadiko Kutxan azaroaren 30era arte. 20 euro aurreratuta behar dira 0091140232 kontu korrante zenbakian (Maria Eugenia Basterra).

AZKEN PLAZAK ESPERIENTZIA ESKOLAN

Mugabek eta Udalarekin elkarlanean Bizikasik antolatutako Esperientzia Eskolan plaza libre batzuk gelditzen dira oraindik eta izen-ematea bihar, martitzena, bukatuko da. Argibideak Miguel Altuna ikastetxean edo 943 76 93 94 telefonoan (Miren).

ARIMEN EGUNA OSPATUKO DUTE GAUR OSINTXUN

Osintxuko *Gaztañatan azaroa* egitarauaren barruan, Arimen Eguna ospatuko dute Osintxun gaur, astelehena. Gaztainak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da auzoko plazan, 19:00etan hasita.

DOMEKAKO KANTU TXAPEL-KETAKO FINALERA

Domekan Donostiako Printzipal antzokian izango den kantu txapelketako finalerako autobusa antolatu du Musika Eskolak. 15:00etan irtengo da autobus geltokitik. Izen-ematea bihar, martitzena, bukatzen da. Argibideak: 943 76 57 80.

SAN JOXEPEKOAK LIZARRARA EGUENEAN

Eguenean, hilaren 24an, Lizarrara joateko irteera antolatu dute erretiratuek. Autobusa 08:30ean irtengo da eta iluntzean bueltatuko dira. Argibideak 943 76 21 40 zenbakian.

Ehun bat gaztetxo Gorlako irteeran

Lehen Hezkuntzako ikasleek mendi irteera egin zuten aurreko domekan. Bergara inguruan ibili dira herriko ubidea ezagutzen eta domekan Gorlara joan ziren. Ehun gaztetxo eta guraso inguruk hartu zuten parte irteeran; ondoren, Altzasun salda eta txorizoa hartu zuten indarrak errekuperatzeko. Altzasukoei eta Leturia harakindegiari eskerrak eman nahi dizkie Pol-Polek.





Ander Lipus eta Andoni Egaña. Bergaran Sustrai Colina izango da Egañaren ordezkia *Erregea eta bufoia* ikuskizunean. | GOIENA

Euskara Egunerako herri bazkaria antolatu dute Muniben

Karpa jarriko dute eta berogailua izango da; txartelak 15 eurotan eskuratu ahal izango dira; abenduaren 3an goizetik ekitaldiak izango dira

E.M. | BERGARA

Abenduan Euskararen Eguna ospatuko da Bergaran eta Udaleko kultura zerbitzua egitarau zabala gertatzen dabil egun horretarako, herriko hainbat elkarterekin elkarlanean.

Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE) 1949an Eusko Ikaskuntzaren baitan sortutako ekimena da eta urtero, abenduaren 3an, euskal hizkuntzaren unibertsaltasuna aldarrikatzea du helburu. Zapatua da abenduaren 3a aurten eta, esan bezala, hainbat ekitaldi izango dira Bergaran egun horre-

tan. Goizetik gauera euskal giroa nagusitzea da antolatzaileen asmoa.

Bi antzerki emanaldi

Hasteko, hitz gurutzatuen lehiaketa jokatu da San Martin plazan 11:30ean eta, aldi berean, Euskara eta teknologia berriak saioa egingo da plazan. Eguerdirako herri bazkaria deitu dute Muniben jarriko den karpan. Txartelak 15 eurotan eskuratu ahal izango dira kultura etxean eta Deportivo eta Arrano tabernetan. Menua ere aurreratu dute

dagoeneko antolatzaileek: baba-rrun gorriak sakramentu guztiekin; oilaskoa entsaladarekin eta hojaldre tarta izozkiarekin (ogia, edaria eta kafea barne). Berogailua jarriko dute karpan. Lanean aritzeko boluntario bila dabilta. Bazkal ostean *Erregea eta bufoia* ikuskizuna izango da, Ander Lipus eta Sustrai Colinarekin. Arratsaldean, 18:00etan, Taun-Taun antzerki taldeak *Txio-Txioka* antzezlan eskainiko du Zabalo-egin. Euskarazko kantuen kantu-jira 19:00etan egingo dute, San Martin plazatik hasita.

Paleografia ikastaroa azaroaren 26an hasita

E.M. | BERGARA

Antzinako elkarteak Bergarako Udal Artxiboko laguntzarekin antolatuta, paleografia ikastaroa egingo da Bergaran. *Caligrafía de textos modernos: Introducción a la lectura de documentos de Archivo de los siglos XVI al XVIII* izenburupean, eskolak azaroaren 26an eta abenduaren 3an eta 17an izango dira, 9:30etik 13:30era, Miguel Altuna institutuan. Lau orduko hiru saio izango dira beraz. Irakaslea Victoriano J. Herrero Liceaga izango da. Artxibo historikoetako dokumentu fondoak aztertzen dituzten guztiei dago ikastaroa bereziki zuzenduta. Besteak beste, Aro Modernoan idatzitako agirietan erabilitako grafia ezberdinak aztergai izan dituzte ikastaroan. Matrikulak 25 euro balio du eta izen-ematea egiteko edota argibideak jasotzeko ondoko helbide elektronikora jo dezakete interesatuek: info@antzina-ko.org.

Keinuen hizkuntza

Bestalde, Aransgik, Gipuzkoako pertsona gorren familien elkarteak, keinuen hizkuntza ikasteko ikastaroak antolatu ditu. Gorrekin komunikazioa hobetu nahi duten debagoiendar guztiei daude zuzenduta.

Hastapen zein sakontze mailak izango dira, urtarriletik maiatzera. Ikastaroak 30 ordukoak izango dira Argibide gehiago Aransgiko egoitzan, Boni Laskurain pasealekuan, edo 943 76 27 03 telefonoan.

Gurasoei zuzendutako hitzaldia eguaztenean kultura etxean

La autonomía y desarrollo infantil izenburuko hitzaldia antolatu du Udaleko Prebentzioarako Zerbitzuak. Hitzaldia kultura etxean izango da eguaztenean, azaroaren 23an, 18:00etan. Hitzaldia Etxadiko kideek emango dute, Orientazio Psikologikorako Zerbitzua eskaintzen duten profesionalak. Orain dela lau urte jarri zuten abian Bergaran Familientzako Orientazio Psikologikorako Zerbitzua.

Azokarako liburu bilketa Jardunen, eguenera arte

Jardunek euskarazko liburuen truke azoka antolatu du azaroaren 25erako eta 26rako San Martin plazan. Azokarako liburu bilketa hilaren 24ra arte egingo dute Jardunen, kultura etxean, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Argibideak Jardunen, 943 76 36 61 zenbakian.

Odol ateratzea eguaztenean anbulatorioan

Odol ateratzea egingo dute eguaztenean, azaroaren 23an, anbulatorioan, 18:00etatik 20:30era. Lokal berriaren zain, herriko odol emaleek ez dute lehen egiten zuten moduan telefonozko deirik egiten emaleak abisatzeko eta beraz herritarrei dei egiten diete etzi anbulatorioa hurbiltzeko.

El Salvadorreko kalteei aurre egiteko laguntza eske

El Salvadorren kalte ugari jaso dituzte azken asteotako euri jasak eraginda. Mikel Andueza apaiz bergararra El Salvadorren dabil aspaldi eta laguntza jasotzeko Oscar Romero Solidaritate Batzordeak hiru kontu ireki dituela gogoratu nahi izan digu: Kutxan (2101 0001 14 0004048278); Euskadiko Kutxan (3035 0059 81 0590021346); eta Banco Sabadell Guipuzcoanon (0042 4161 31 0001037408).

Santa Zezilia ospatuko dute Alai Taldeak eta Bergarako Orkestrak

Bihar, martitzena, Santa Zezilia –musikariaren zaindariaren eguna– ospatzeko Alai Taldea abesbatzak kalejira –edo txikiteoa abestuta– egingo du. Bidekurutzetan, Guria taberna parean hasiko da, 19:00etan. Egubakoitzean, berriz, Bergarako Orkestrak egingo du kontzertua, 20:00etan Mariaren Lagundiko elizan.

Ibaiondoko pasealekuaren itxura berritua

Azken ukitu batzuen zain, bukatzeaz daude Ibaiondo urbanizatzeko udaren atarian abiatutako lanak

E.M. | BERGARA

Oraindik ere ukitu gutxi batzuk geratzen diren arren, Ibaiondo lanak amaituta daude ia. Udaren atarian hasi zituzten lanok, eta hiru izan dira proiektuaren ardatz nagusiak: batetik aparkalekuaren arazoari irtenbidea ematea; bestetik erreka bazterra balioztatzea; eta ASPACE ingurua txukuntzea.

Aspaldiko eskaera

Ibaiondo pasealekuko zorua asfaltatu egin dute eta autoendako ibilbidea, oinezkoendako guneak eta aparkalekuak ondo bereizi dituzte. Toki ezberdinetan markatuta, 86 ibilgailu aparkatzeko tokia dago orain. Era berean,

hainbat farola jarri dituzte iluntzetik aurrera argiztapen ona ziurtatzeko.

Matxiategiko haurren parketik Lasai Toki elkartera doan zatu horretan egin dituzte lanok. Auzotarren aspaldiko eskaera zen Ibaiondo ingurua txukuntzea.

Esan bezala, ekain aldera hasi zituzten lanok, 367.629 euroko aurrekontuarekin. Hasierako adjudikazioan aurreikusten ez ziren lan gehigarriak (ur hornidura lanak ASPACE inguruan, telekomunikazio azpiegituraren instalazio berria eta beste) egin behar izan dituztela eta, 48.595 eurokoa onartu zuen udalbatzak irailen.



Zorua asfaltatu eta ondo seinalatu dituzte aparkalekuak. | E.M.



Osasun etxeko mediku eta erizainak, Santiago Aietxu (lehena eskuinean) arduradunarekin. | MIREIA BIKUÑA

Gaixoak atenditzeko protokolo berria osasun etxean

Administrarien, erizainen eta medikuen artean banaketa zehatzagoa egingo dute aurrerantzean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Osasun etxean gaixoak atenditzeko protokolo berria martxan dute hil hasiera ezker. Aurrerantzean hauxe izango da protokoloa: osasun etxera deitzen duten

gaixoak duten patologiaren arabera erizainaren edo medikuaren kontsultara bideratuko dituzte administrariak. Gaixotasun arinak -katarroak, zistitisak, belarriko eta eztarriko minak, belarrietako

tapoiak, eztarriko mina eta biharamuneko pilula-erizainak atendituko ditu eta beharrezkoa den tratamendua emango du. Zalantzen bat dutenean medikuari galdetuko diote.

Gaixotasun larriak eta kronikoak, berriz, medikuak atendituko ditu. Bajak, informeak, eta errezetak egitea, besteak beste, administrarien ardura izango da. "Erizainei protagonismo handiago eman gura diegu. Lana antolatuko dugu harreran dauden administrarietatik hasita", esan du osasun etxeko arduradun Santiago Aietxuk. Oraingoan, pediatria zerbitzuan ez dute protokoloa erabiliko. "Bestelako arazoak ditugu pediatriarekin. Egun bi mediku ditugu, baina askotan bakararekin geratzen gara. Oraingoan, ez gara umeen kontsultan sartuko. Talde batek lanean dihardu modu egokiena zein den erabakitzeke", dio Isabel Arenatzak.

Hiru kontsulta mota

Medikuek gaixotasun kronikoak eta patologia bat baino gehiago dituzten gaixoei arreta berezia emango diete. Hartu-eman zuzena izango dute Debagoieneko ospitaleko espezialistekin. "Gizarte geroz eta zaharragoa daukagu, eta haien gaixotasunak kronikoak eta larriagoak dira. Haien behar duten arreta izateko, arinagoak diren gaixoak atera behar ditugu gure kontsultatik. Erizainak gai dira gaixotasun horiek ondo atenditzeko", diote arduradunek.

Protokolo berriarekin hiru kontsulta mota sortu gura dituzte osasun etxean: telefono bidezko kontsultak -analisiak emaitzak, ezaugarri klinikoaren jarraipena eta zalantzak argitzea-; kontsulta ez presentzialak; eta kontsulta administratiboak. Harreran dauden langileek altak eta bajak, ebakuntza egin aurreko dokumentazioa, errezetak, anbulantziatarako bolanteak eta espezialistendako txandak emango dituzte.

Merkatariei baliabide turistikoak erakusten

Bisita gidatuak egiten dihardute herriko dendarien elkarteko kideekin

M.B. | OÑATI

Udaleko Sozioekonomia batzordeak, Garapen eta Turismo Agentziarekin batera, herriko merkatariei eta ostalariendako bisita gidatuak egiten dihardu. "Helburua da merkatariek eta ostalariak turismo agente aktibo izatea, herriko turismo baliabide eta turismo ekintzak ezagutzeko eta ezagutarazitzeko", dio Sozioekonomia batzordeko buru Josu Lizarraldekin.

Lehen bisita gidatua aurreko egubakoitzean, hilaren 18an, egin zuten, eta 23 lagunek parte hartu zuten. Turismo Bulegoa non dagoen erakutsi eta hango teknikariekin unibertsitatea, parrokiak eta udaletxeak bisitatu zituzten. Hurrengo bisita egunean, hilaren 24an, egingo dute. 13:30ean elkartuko dira Turismo

Bulegoan. Dagoeneko 15 bat lagunek eman dute izena. Interesatuak Turismo Bulegora deitu behar dute (943 78 34 53).

Bi batzorde baten

Bilduko udal taldea gobernura heldu zenean 12 batzordetan antolatu zuen udal jarduna. Batzorde batzuk berriak dira, tartean, Sozioekonomia batzordea. Hor batu dituzte aurreko agintaldiko Enplegua eta Merkataritza eta Turismo batzordeak.

Ordutik hona, Sozioekonomia batzordeak lanean dihardu. Oraingo bisita gidatuz gain, turismoak Oñatira ekartzeko dituen bisitariak herriko merkataritza eta ostalaritzan emaitza onak utz ditzaten lortzeko ekintzak egingo dituzte.



ENERITZ ARANTZETA

Rufino Arantzetak 102 urte

Rufino Arantzetak 102 urte bete zituen hilaren 15ean. Familiako kide guztiekin ospatu zuen urtebetzea eta tarta ederra opari egin zioten. Rufino elgetarra da jaiotzez, baina gerra ostean Oñatira etorri zen bizitzera emaztearekin. Forjas de Zubillaga lantegian egin zuen lan erretiroa hartu zuen arte. Bost seme-alaba, zazpi biloba eta hiru birbiloba ditu. Zorionak, Rufino!

Genero indarkeriaren kontrako elkarretaratzea

Azaroaren 25a Genero Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta, horren harira, hainbat ekitaldi antolatuko ditu Berdintasun Taldeak. Egubakoitzean, 18:30ean, elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzeko.

Eguenean, zineklubean, Montxo Armendarizen *No tengas miedo* emango dute (20:00).

Azkenik, hilaren 29an *Preveniéndolo la violencia sexista desde la participación social* hitzaldia egingo du Carmen Sara Gonzalezek kultura etxean (19:00).

Oñati Abesbatzak Madrilen abestuko du hilaren 26an

Oñati Abesbatzako kideak Madrilerako doaz aste bukaeran. Hango Euskal Etxeak urtero gonbidatzen du Euskal Herriko talderen bat, eta oraingoan oñatiarrak doaz aste bukaera pasa.

Hilaren 26an abiatuko dira Madrilerako, eta egunean bertan kontzertua egingo dute San Ignacio de los Vascos elizan. Hainbat pieza abestuko dituzte, batzuk euskal kantuek. Hurrengo egunean, domekan, elizan izango den meza kantatuko dute.

Zapatu gauean Euskal Etxean afalduko dute Madrilen bizi diren eta Euskal Etxeko kide diren euskaldunekin.

OHARRAK

IKUS-ENTZUNEZKOA

Mendi hamabostaldiaren barruan, Fidel Mendiak hitzaldia egingo du hilaren 22an kultura etxean (19:30). *Alpeak denontzat* ikus-entzunezkoa egingo du, eta Europako erreiserbarik eder haren sekretu guztiak erakutsiko ditu.

IKUS-ENTZUNEZKOA

Mikel Saez ordiziarrak *Negu giroko eskalada* delako ikus-entzunezkoa egingo du hilaren 23an mendi hamabostaldia bukatzeko (19:30).

PLASTIKO BILKETA

Martitzenean, hilaren 22an, batuko dute baserrietako plastikoa. Oñatin lau lekutan utz daiteke: Murgiako Aseztio ermitaren ondoan; ETEO atzealdean; Oلابarrietako autobus geltokian; eta Zañartun Zuazola zubiaren ondoan. Baserrietako plastiko zuriak eta beltzak eta berotegietakoak batuko dituzte.

ARETXABALETAKO

Hasi dira Gabonetako apaingarriak jartzen

Abendura arte ez dituzte piztuko zuhaitzetako argiak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Gabon sasoirako gertatze lanetan hasi da Udala eta argidun apaingarriak jartzen dabilta azken astean herriko hainbat zuhaitzetan. Hala ere, abenduko zubira arte ez dituzte piztuko argiak.

Udalak erabaki du iazko lekuean jartzea Gabonetako apaingarriok. Hala, zuhaitzetan bakarrik jarriko dituzte eta ez da bestelako argirik egongo. Araba ibilbidean eta Mitarte, Durana, Laisita, Santa Kurtz eta Errekabarraren kaleetan dauden hainbat zuhaitzetan jarriko dituzte apaingarriok, guztiak argidunak, Gabonetako jaieguna koloredun argiekin girotzeko.

Abenduaren 3aren bueltan piztuko dituzte argi horiek eta urtarrilaren 7a bitartean egunero egongo dira piztuta iluntzetik goizaldera artean.

Muntatzea garestiena

Hirigintza Saileko teknikariek jakinarazi dute 5.000 euro inguruko kostua izango dutela Gabon argi horiek, iazkoari begiratu gero. "Hala ere, kontuan hartu behar da zenbat denbora behar izan duen teknikari batek apaingarriak muntatzen eta zenbat denbora egongo diren piztuta gero", diote. Kosturik handiena, baina, muntaiari dagokio; argindar kontsumoa 800 euroren bueltan ibiliko dela argitu dute.



Durana kaleko zuhaitzetan teknikari bat argidun apaingarriak jartzen. | M.A.

Erakusleho lehiaketa gertatzen

Udalak jarritako apaingarriekin batera komertzioetako erakuslehoek girotuko dituzte herriko kale eta bazterrak Gabon sasoiari. Hala, Kultura Sailak erakusleho lehiaketa egingo du abenduan, azken urteotan legez, eta egunotan

dabil lehiaketa horren oinarriak gertatzen. Hainbat berrikuntza iragarri dituzte, gainera, eta epaimahaiko kideek ez ezik herritarrek ere bozkatzeko aukera izango dutela aurten hautatzeko orduan, aurreratu dute Kultura Saileko kideek.

OHARRAK

BAKARRIZKETA

Sustraiak han dituenak bakarrikzeta eskainiko du Goio Arrietak eguaztenean, hilak 23, Arkupen (19:30). Sarrera 5 euro da. Azken saioa da.

IRTEERA MURRUKIXOREKIN

Murrukixo MEk antolatuta mendi irteera egingo dute domekan, azaroak 27 (08:00). Araba eta Errioxa aldera joko dute, eta ostean upategi batean bazkaldu. Murrukixoren egoitzan eman behar da izena bihar (19:00-20:00). Autobusaren prezioa 15 euro da.

BIDEOJOKOAK, HITZALDIA

Gazteak eta bideo jokoen erabilera segurua hitzaldia egingo dute gazte eta gurasoendako hilaren 29an (18:00) Arkupen. Izena aurrez eman behar da Arkupeko harreran.

'BERTSOLARI' FILMA

Asier Altunaren filma emanango dute aste bukaeran: egubakoitza eta zapatua (22:00); eta domeka (19:30).

Mahai-joko lehiaketan izena emateko epea zabalik dute Basotxon

Domino, mus, briska eta tute txapelketak jokatuko dituzte Basotxo erretiratuen egoitzan abenduaren 15ean eta 16an; eta finalak abenduaren 17an. Irabazleek, gero, Debagoieneko erretiratuen arteko txapelketan Basotxo ordezkatuko dute.

Izena emateko epea zabalik dago abenduaren 1a bitartean, Basotxon bertan.

Mus txapelketa jokatu dute Txakoli tabernan zapatuan

II. mus txapelketa antolatu dute Txakoli tabernan hilaren 26rako (16:00). Bikote bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu eta sari bikainak iragarri dituzte: 1.ak, trofeoa, jasotako diruaren %50, cava eta ardoa; 2.ak, trofeoa, diruaren %25 eta ardoa; 3.ak, diruaren %15 eta ardoa; eta 4.ak, diruaren %10 eta ardoa.

'Amores y desamores' antzezlan gaur Arkupen

M.A. | ARETXABALETAKO

Egubakoitzean, azaroak 25, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta *Emakumeenganako indarkeriari* ez lelodun astea antolatu dute Berdintasun Sailak eta Gizarte Zerbitzuek. Helburua da emakumeek jasaten duten indarkeriaren gainean hausnartzea.

Hona asteko egitaraua –ekitaldi guztiak Arkupen dira–: gaur, *Amores y desamores* antzezlan Las Torpedolevel taldearen eskutik (19:00); bihar, hilak 22, *Gizonak emakumeen kontrako indarkeriaren aurtean* berbaldia Gizonduz elkarteko kideen eskutik (19:00); eta egunean, hilak 24, *Nagore* filmaren emanaldia –Iruñean erailldako Nagore Laffage gaztearen gaineko– eta ondoren eztabaida saioa Jaione Juaristi psikologoak gidatuta (19:30).

ESKORIATZAKO

V. ardo dastatzea zapatuan Aitzorrotz kultura elkartearekin

M.A. | ESKORIATZAKO

Datorren zapatuan, hilak 26, bosgarren aldiz egingo du Aitzorrotz kultura elkarteak ardo dastatzea. Herriko Plazan elkartuko dira horretarako (18:30) eta txistulari eskoriatzarrek lagun eginda jai giroa sortuko dute plazan eta inguruko kale bazterretan.

Ardoa eta mokadutxo

Garcia Olano eta Ostatu upeltegietako hainbat ardo ekarriko dituzte dastatzeko, Errioxako ondutako ardoak guztiak. Eta edatekoari lagun egiteko

jatekoa ere eskainiko dute; txistorra mokadutxo. Gainera, berogailuak jarriko dituzte epeletan egoteko. Bost euroko txarretak salduko dituzte dastatze horretarako, eta txartelokin kopa, ardoa eta mokadutxo hartu ahal izango dira –bakotzak euro bana–.

Eta aurreko urteotan legez, dastatzeak irauten duen bitartean txistularien emanaldia izango da plazan. Hortaz, eguraldiak laguntzen badu, behintzat, jende mordo elkartu eta giro bikaina sortuko delakoan daude antolatzaileak.

Gaztaina-jana eginda festa giroa izango dute egunean, hilak 24, erretiratuen egoitzan

Gaztainak erre eta jango dituzte erretiratuek egunean, hilak 24, erretiratuen egoitzan (17:00). Jai giroa sortuko dute herriko erretiratuek egun horretan eta gainerako eskoriatzarrek ere gonbidatu gura dituzte gaztaina-janera.

Hain zuzen, gaztainak lehentasunezko elikagaiak izan dira luzaroan leku askotan. Gurean aldatu egin da hori, baina umeen nahiz helduen gustuko fruitu dira, eta udazkenean gaztaina-jana egiten jarraitzeko ohitura dute toki askotan; besteak beste, herriko ikastetxeetan eta erretiratuen egoitzan.

Egubakoitzean jarri ziren salgai Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarrerak, eta denak saldu dira

Joan den egubakoitz goizean jarri zituzten salgai kiroldegian Pirritx eta Porrotx pailazoez zapatuan egingo duten *Zazpikolora* ikuskizunerako sarrerak, eta egubakoitzean bertan saldu zituzten.

Dagoeneko sarrera guztiak daude saldu: 1.400, hain zuzen; gehienak aurrez zeuden banatuta herriko ikastetxeen bitartez. Egubakoitz goizean 300 sarrera zituzten kiroldegian, inguruko herrietatik zetozei eskaintzeko, eta eguerdi ingururako gehienak saldu zituzten.



M.A.

Santa Zezilia eguna ospatzen

Musikarien zaindaria Santa Zezilia eguna da bihar, hilak 22, baina Leizarra musika eskolako kideek egunean ospatu zuten. Kalejiran jardun zuen bandak, herriko kaleak musikarekin girotuta.

Aretxabaleta Abesbatzako kideek, osterara, atzo izan zuten gogoan zaindaria: meza nagusian abestu zuten lehenengo, eta gero, Hirusta jatetxera joan ziren bazkaltzera.



Guraso elkarteko ordezkariak eskolako umeen artean gaztaina-erreak banatzen. | LZ

ELGETA

Maala guraso elkarteak barikuan egin zuten urteroko gaztaina-erre jana

Herriko umeendako eta gaztetxoendako Gabonetako pilota txapelketa antolatu du Udalak; izena emateko azken eguna azaroaren 28a da

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bariku arratsaldean herri eskolako neska-mutikoen giro bikainarekin egin zuten gaztaina-erre jana. Eskolako irakasle eta ikasleak —100 lagunetik gora— 15:00etan abiatu ziren eskolatik Herriko plazarantz. Behin udaletxe aurrean hainbat kantu eskaini zituzten. Gustura entzun zituzten gaztetxo bertsuak bertan elkartutako gurasoek eta herritarrek.

Umeak egunkari paperarekin egindako kukurutxo banarekin etorri ziren plazara eta kantuak amaitu bezain pronto ipini ziren ilaren nagusien eskutik gaztaina beroak jasotzeko. Ordurako prest zuten gaztaina tanda bat Enrike Perez Txikiturrik. Aspaldiko partez berak prestatu ditu aurten gaztainak eta bat baino gehiagoren iritiz "oso goxoak zeuden".

Plaza erdi-erdian zuten danbolina Txikiturrik eta Maala guraso elkarteko ordezkarien laguntzarekin bost bat tanda gaztaina erre behar izan zituen.

Urteroko ekitaldi honekin ematen diote sarrera neguko ospakizunei Elgetan. Hala, Guraso elkarteko ordezkariak laster hasiko dira hurrengo hitzordua gertatzen; Olentzeroren etorrera, hain zuzen ere. Ikazkina, urtero moduan, abenduaren 23an jaitsiko da Intxortatik Elgetara.

Eskola txikiko arropa

Barikuko ekitaldian Elgetako guraso elkarteko ordezkariak ikasturte honetan egingo den Eskola Txikiak festako arropa saltzen aritu ziren. Honakoa 25. edizioa izango da eta ekainaren 3an ospatuko dute Larraulen. Arropa beste zenbait egunetan

ere Elgetan erosteko aukera egongo da. Guraso elkarteko ordezkariak arduratuko dira lan horretaz.

Umeen pilota txapelketa

Udala, bestalde, Gabonetako pilota txapelketa antolatzen hasi da. Hala, herriko ume zein gaztetxo guztiak txapelketa horretan parte hartzea animatzen ditu.

Neskak zein mutikoak guztiak daude izena ematera deituak. Urtero antolatu ohi den txapelketa da honakoa eta abenduan, Gabonetako oporraldian, jokatzeko da.

Ez da beharrezkoa pilotan eskarmentu handia izatea, baina ezinbestekoa da alde aurretik izena ematea. Interesatuak abenduaren 28a dute izena emateko azken eguna. Eskolan edo udaletxean eman behar dute izena.

LEINTZ GATZAGA

Bukatze dago abereak basora eroateko baimenen eskaera epea

Eskaerok udaletxera bideratu behar dituzte eta azaroaren 30a da horretarako azken eguna

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Datorren urtean abereak basora eroan gura dituzten baserriarrek orain egin behar dute eskaera udaletxean; azaroaren 30erako hain zuzen. Abere mota eta kopurua zehaztuta egin behar da baimen eskaera, eta Udalak, gero, Aldundiari jakinaraziko dio, horren oniritzia jasotzeko. Dagoe-

neko jaso dute baimen eskaeraren bat edo beste, baina oraindik gehiago izango direlakoan daude Udala arduradunak, "zazpi edo zortzi inguru".

Lau abere mota

Onura publikoko Gatzagako Mendia basoan abereak ibiltzea arautzen duen ordenantza 2008an

onartu zuten Udalak, eta han ezarri bete beharreko baldintzak: abeltzainak gatzagarrak izango dira —errolatuta eta bertan bizi—; eta Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan izena emanda egon behar dute. Gainera, abereok osasun betebeharrak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute jabeek.

Gatzagako Mendian behiak, ardiak, ahuntzak eta zaldiak ibil daitezke; txerriek, ostera, debekatuta daukate, baina eskaerarik ere ez da izan. Hektarea bakoitzean ibil daitezkeen abere kopurua ere zehaztuta dago: 10 ardi edo bi behi edo zaldi bat. Hortaz, eremu baten ganadu gehiegi balego, beste batera eroango dituzte.

ARAMAIO

Errezilgo esperientzia ezagutzera joan zirenak gustura itzuli ziren

Aramaio Baserri Barri antolatuta irteera egin zuten marmelada egiten duten kooperatibara

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Joan den azaroaren 5ean Aramaio Baserri Barri fundazioak (ABB) irteera berezia antolatu zuten Errezilera. Hango emakume talde batek duen marmelada egiteko kooperatiba bertatik bertara ezagutzen aritu ziren.

Bi hitzetan esanda, euren instalazioak ikusi eta esperientziak trukatzeko balio izan zuten irteerak. Errezilgo eredua ABBren etorkizuneko egoitza izango den ikerketa zentroan aplikagarria den ikustera joan ziren. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren bigarren dirulaguntza jaso berri duen proiektu horretan Udalak aurreikusten du barazki eta frutak eraldatuko dituen makinarria jartzea. ABB fundazioari esker Errezilen izan ziren ara-

maioarrek gutxi gorabeherako ideia batekin itzuli zirela adierazi zieten Aitor Larrañaga arduradunari.



Erakusgai dituzten produktuak. | ABB



Errezilgo kooperatibaren makinarria. | ARAMAIO BASERRI BARRI FUNDAZIOA

ANTZUOLA

'Nagore' dokumentala martitzenean Oларanen

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Azaroaren 25ean da Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Horren harira ekintza ugari antolatzen dira herri guztietan eta Antzuolan ere bi ekintza izango dira: lehenengoa bihar, martitzena, 18:30ean, Oларanen; Nagore izeneko dokumentala emango dute bertan.

Helena Tabernak zuzendu du lana, eta Nagore Laffage gaztearen hilketa du ardatz nagusi. Jose Diego Yllanese hil zuten Laffage 2008ko sanferminetan. Filmean parte hartzeaz gain, kontakizunaren hari nagusia ere bere gain hartu du Asun Casasolak, Nagoreren amak. Biktimaren familiako kideen eta lagunen testigantzak jasotzeaz gain, lanak prozesu judizialean inplikaturako hainbat

kideren ikuspegia ere plazaratzen du: fiskalarena, alde bietako abokatuena eta genero indarkeriaren kontrako kolektiboetako ordezkariena, besteak beste. Horrez gain, pelikular artxibo-materiala ere biltzen du, krimenaren berritzearen irudiak eta epaiketaren hainbat atal.

Film dokumentalak zenbait aitorpen eta sari jaso ditu jaialdian. Azkena azaroan jaso du, Vigon (Galizia), genero indarkeriaren kontra egindako lanarengatik.

Elkarretaratzea

Azaroaren 25ean, egubakoitza, emakumeen aurkako indarkeria salatzen elkarretaratzea egingo da Herriko Plazan, 18:30ean. Antzuolako Udala antolatu ditu bi ekintzak.




289€

Ordezkatze-garantia **49€**

SAMSUNG LCD TELEBISTA
LE32D403E2WXXC mod.

APROBETXATU ESKAINTZEN DIZKIZUGUN ORDAINKETA ERRAZTASUNAK AZOKAN, ELEKTRONIKAN, ETXERAKO GAUZETAN, EHUNKIETAN ETA AISIALDIAN.

3
HILABETE
INTERESIK
GABE
KOMISIOA: %1
TIN: %0 TAE: %5,46
90€ gorako erosketetan

10
HILABETE
INTERESIK
GABE
KOMISIOA: %1
TIN: %0 TAE: %2,12
199€ gorako erosketetan

18
HILABETE
INTERESIK
GABE
KOMISIOA: %1
TIN: %0 TAE: %1,24
599€ gorako erosketetan

Santander Consumer Finance S.A.k eskaintzen du finantzaketa, eta EROSKI red Visa txartelaren bidez onartu behar da. Urteko interes-tasa nominala %0. Ordainketa atzeratzeagatik komisioa %1 lehenengo kuotan ordaintzen da. Ordainketak hilaren 5ean likidatzen dira. UTB kontratazio egunaren arabera alda daiteke. Hona hemen zenbait adibide 11/10/28an kontratatuta eta lehen ordainketa 11/12/5ean eginda: 200 3 hilabetetan %5,46 UTBarekin, guztira 202, 800 10 hilabetetan %2,12 UTBarekin, guztira 808 eta 1000 18 hilabetetan %1,24 UTBarekin, guztira 1010. EROSKI diruz laguntzen ditu interesak. Sustapena, 2011ko urriaren 26tik 2012ko urtarrilaren 6ra arte.

Eskaintza baliagarria Arrasateko Eroski hipermerkatuak

Gure liburuxkak kontsulta itzazu www.eroski.es webgunean

Zure esanetara gaude: **902 54 03 40**

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Erabakita zirudiena zaildu zen arren, azkenean derbia etxekoentzat

la bigarren zati osoan gol bakarrera izan zuen Mondrak berdinketa

EMAITZA
ALOÑA MENDI
4-2
MONDRA

JULEN IRIONDO | OÑATI

Lehenengo zatian nabarmen nagusitu zitzaion Aloña Mendi Mondrari, eta atsedendian 3 eta 1ekoa zen Azkoagaingo emaitza. Bigarren zatian, baina, hobeto ekin zion Mondrak, eta bigarren gola eginda hortxe izan zuen berdinketa, 90. minutuan partiduko jokalaria, Asier Ugartek, etxe-koen laugarrena egin zuen arte.

Puntu premiak baldintzatu-tako derbian, indartsu atera zen zelaira Aloña Mendi. Hamargarren minutua betetzera eman zion lehen sustoa Mondrari, eta sustoa bakarrik, epaileari esker: arrasatearrek zelai erdian urrutzen asmatu ez zuten baloia jaso zuen Unai Bikuñak eta Mikel Zabala azken atzelariak lurrera bota



Asier Ugarte Mikel Gartzia atezainaren aurrean; jokaldi horretan ez baina beste bitan egin zuen gola. | JULIO CALLEJA

zuen. Epaileak txartel horia atera zion, gorria izan arren.

Baina bost minutura heldu zen etxeko lehena, aurkako falta batetik kontraerasoa eginda, eta hamar geroago bigarrena, aldeko falta aprobetxatuta: lehenengoan Asier Ugartek pasea Roberto Idigorasi, eta honek gola;

bigarrenean protagonista berak, paperak trukatu. Ugartek eta Idigorasek min asko egin zuten erasoan bi hegaletatik.

Beste hainbat aukera ere izan zituen Aloñak lehen zatian, baina Mikel Gartzia Mondrako atezainak eragotzi zuen gola. Aldiz, euren egin zuten arrasatearrek

atsedenaldi aurretikoan, Markel Crespok buruz falta errematatu-ta; baina oñatiarrek astia izan zuten oraindik, Unai Bikuñaren bitartez –nola ez, Asier Ugartek baloia buruz utzita– hirugarrena egiteko. Gol ederra izan zen, buelta erdian, postura behartuan, eskoadrara. Oro har partidu osoan



ASIER UGARTE
ALOÑAKO JOKALARIA

"Mondraren aurka izanda beti motibatzen du gehiago. Aurrera begira jarraitu behar dugu, orain lasaixeago eta gorago begira. Bagenekien hegialak erabili behar genituela. Ondo jokatu dugu".



IKER LOPEZ
MONDRAKO JOKALARIA

"Kontraeraso baten txartel gorria barkatu digu epaileak eta hortik aurrera gaizki ibili gara atzean. Bigarren zatian saiatu gara, baina atzean hutsune gehiago utzi ditugu. Arriskatu egin behar zen".

moduan, baina, atzean bigunegi ibili ziren arrasatearrek.

Bigarren zatiko hamargarren minutuan Andoni Aizpuruak egin zuen Arrasatekoen bigarrena, falta ate erdira jaurti baina Aloñako atezainak huts eginda.

EMAKUMEZKOAK

Sokoa Azkarate arrasatearra atean zela, txuri-urdinak nagusi Mojategiko lehiari

Jende asko batu zen harmailetan Lehenengo Mailako taldeak ikusteko

EMAITZA
REAL SOCIEDAD
2-0
PRAINSA ZARAGOZA

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Neurketa aurretik oroigarriak eman zizkioten elkarrizketa Realeko, Zaragozako eta Mondrako ordezkariak, eta etxeko kadeteek kantuz zoriondu zuten Arrasateko emakumeen taldea, 25. urtemugatik. Ospakizun ekitaldietako bat izan zen zapatukoa.

Lehiari dagokionez, lehenengo zatian Realak izan zuen baloia, baina ez zuen aukera askorik sortu. Horiak eta golak bigarrenean iritsi ziren. Uxue Garmendia eta Idoia Agirre izan ziren golegile. Lehen gola kontraeraso bizkorrean heldu zen, eta biga-



Gero gola egin zuen Idoia Agirrerren beste aukera bat. | JOSETXO ARANTZABAL

rrena bat-biko eder baten ondoren. Sokoa Azkaratek ez zuen lan handirik izan. Amaieran pozik agertu zen Mondraren urteurrena –12 urte egin zituen berak taldean– ospatzeko aukera izanagatik eta zaleei eskatu zien neskak animatzen jarraitzeko.

Selekzioa, Bergaran ere bai

Mondrak gazte mailako Euskal Selekzioaren kontra jokatu du bihar, martitzena, Mojategin (18:00); egun berean (17:30), Bergarako kadeteek 16 urtetik beherako Euskal Selekzioaren kontra jokatu du Ipintzan.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleta eta Bergara esku hutsik itzuli dira

UDAKoek haserre amaitu zuten Berioeren zelaian eta mahoneroek ere pozik ez Rotetarenean

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Aretxabaletak ondo lortu zuen lehenengo zatian Berioek egin ohi duen joko ona ezerezean uztea. Berioek arriskua balo luzean bitartez sortzen ahalegintzera jo behar izan zuten, eta UDAKoek izan ziren aukera garbienak.

Estrategia jokaldi batean, baina, atezainaren aurrean bakarrik geratu ziren euren hiru jokalarik, eta horrela iritsi zen lehenengo gola. Aretxabaletarrei jokoz kanpoko iruditu zitzaizkien jokaldia.

Bigarren zatian berdinketaren bila atera ziren; baina, Juanan Cruz entrenatzailearen arabera "gauza arraroak" hasi ziren gertatzen. Epaileak edozergatik atera omen zizkien txartelak –hamar hori eta hiru gorri– eta irizpide desberdina

erabili ei zuen talde bat eta beste zigortzeko. UDAKoek harrituta geratu ziren gero, ikusi zuten epaileak aktan lau hori eta gorri bakarri jarri zituela, "gaizki aritu zela pentsatuta?", galdegiten dute.

Bergarak penaltia huts

Rotetaren zelaian ondo hasi zen Bergara, lehen 20 minutuetan dominatuz. Pedrok gola egin zuen mahoneroentzat, baina bost minutura kontrako penaltia adierazi zuten epaileak, izan ez zena, Neca Galan bergararren entrenatzailearen arabera, eskua areaz kanpo izan zelako.

Bigarren zatian, deskuidu batean bigarren gola jaso ondoren, luzapenean penaltia izan zuen alde Bergarak, baina Rotetaren atezainak geratu egin zuen jaurtiketa.

ESKUBALOIA

Atsedendaldi ostean koska izan arren, azkenean ondo irabazi zuten arrasatearrek

Euskadiko Txapelketako lidertza sendotu dute, bost puntuko tartea eginda

EMAITZA

FORD MUGARRI ARRASATE

32-24

EGIA

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Aurkari arriskutsua izan zen zapatuan Iturripen bisitan: kategorian berria izan arren sailkapenean laugarren dagoen Egia.

Lehenengo zatian oso ondo jokatu zuen Ford Mugarrik. Gogo

eta intentsitate handiarekin atera zen taldea kantxara, eta defentsan lan bikaina egin zuen. Balo asko berreskuratuta zituzten arrasatearrek eta, ezin zenean, donostiarren eroso jaurtitzea eragotzi zuten behintzat. Atezainaren lana ere nabarmentzekoa izan zen.

Erasoan, berriz, nabarmentzekoa izan zen Zulu pibotak egindako lana, defentsari posizioa hartuz eta kanporatzeak eta penaltiak eraginez.

Bestetik, Arrasateko taldeak erakutsi zuen baliabide asko dituela erasoan, barneraldiak egiteko edo kanpotik jaurtitzeko: "Jokalaria bakoitzak jakin du egin behar zuena egiten", zioen amaieran pozik Ane Herrero etxeko entrenatzaileak.

Lehenengo zatia 17 eta 9 amaitu zen, Ford Mugarriren alde. Bigarrenari, baina, ez zioten intentsitate berarekin ekin. Defentsan ahulago eta erasoan arazo gehiagorekin, lau golera (19-15) hurbildu zen Egia.

Baina etxekoek erreakzionatu eta aukerarik ez zieten eman donostiarrei. Datorren jardunaldian Gasteizen, sailkapeneko hirugarrena den El Pilarren kantxan jokatuko du Ford Mugarri Arrasatek.



Andoni Bernal, defentsaren gainetik jaurtiketa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

ARETO FUTBOLA

Behar baino lan gehiagorekin baina Berrio Otxoari irabazi egin zion Eskoriatzak

JULEN IRIONDO | ESKORIATZA

Lehenengo zatian ondo jokatu zuten etxekoek eta aurkaria baino gehiago izan ziren. Baina aukera dezente egin zituzten huts, eta horregatik ez zen alde handirik markagailuan atsedenaldian (2-1).

Bigarren zatian gora egin zuten kanpokoek eta fisikoki behera eskoriatzarrek. 0 eta 2

galtzen joandako partidua berdintzea lortu zuten.

Azken hiru minutuen barruan iritsi ziren etxekoek azken golak, 4 eta 2ko garaipena eman zietenak. Jonatan, Barandiaran, Asier eta Aratz izan ziren Eskoriatzaren goleak. Datorren jardunaldian Mamarigakoren kontra ariko dira.



ESKUBALOIA

JOSETXO ARANTZABAL

Ezusteke garaipen handia BKEk

Soraluce BKEk estutasunik gabe (30-25) hartu zuen mendean Labegarietara Euskadiko Txapelketako bigarren postuan iritsi zen Elgoibar. Oso ondo jokatu zuten, azken partiduetan falta izandako zentzua berreskuratuta. Bergarakoek buruz buruko defentsa egin zioten Elgoibarko lehenengo lerroko jokalaria onenari. Etxeko atezainak ere lagundu zuen gol gutxi jasotzen, eta egin erraz egin zituzten.

Aurpegia eta gorputza zain itzazu!

Askotariko tratamenduak eta promozio bereziak ditugu.

Informa zaitez!



AG
Amagara

Erdiko kalea 54 beheka 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

nº R.P.S. 297 / 05.



Alex de la Iglesia saskiratzen; zapatuan 26 puntu egin zituen. | JULIO CALLEJA



Jagoba Gamarra saskira botatzen; 16 puntu egin zituen. | J.C.

EBA LIGA

Azken txanpako erreakzioa ez zen nahikoa izan Oñati Natra Aloñarendako

- ▶ Atsedendaldi aurretik ahul aritu ziren defentsan
- ▶ Azken laurdena erraz irabazi arren berandu izan zen

EMAITZA

NATRA OÑATI ALOÑA

74-82

SAB TORRELAVEGA

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

EBA ligako hirugarren porrota jaso zuen Natra Oñati Aloñak zapatuan SAB Torrelavegaren aurka. Kantabriako taldea gogor hasi zen eta Xabi Igartuaren

mutilak, berriz, ahul irten ziren defentsan. Azken bi jardunaldietan gertatu zitzaizen moduan, zapatuan ere berandu sartu ziren oñatiarrak partiduan: "Atsedendaldirako 43 puntu egin dizkigute eta hori larregi da. Defentsan motelegiak izan gara, bigarren laurdenean, adibidez, lau falta egitera ez gara heldu". Erasoan baloia oso azkar mugitzen duen taldea da Torrelavegakoa eta min handia egiten zuten, batez ere baloia alde batetik bestera mugitu ostean, hiruko jaurtiketekin.

Erreakzioa bai, baina berandu Atsedendaldiraren ostean askoz hobeto irten zen etxeko taldea eta hirugarren eta laugarren laurdenetan kanpokoak baino gehiago izan ziren. Azken laurdena samur irabazi zuen Natra Oñati Aloñak eta partidu osoko balorazioetan berdindu egin zuten bi taldeek. Erreakzioa heldu zen, baina berandu. Lehen bi laurdenetako aldea murriztu bai baina ezin izan zuten gainditu. Beste behin ere sekulako giroa izan zen Zubikoako harmailetan.

ANDER MALLABIABARRENA | JOKALARIA

"Ondo jokatzen dugunean ligako edozein talderi egin diezaiokegu aurre"

Lehia nahiko parekatuta egon zela uste du Ander Mallabiabarrenak. Bigarren eta hirugarren laurdenetan taldeak izan zuen beheraldiak baldintzatu zuen norgehiagoka jokalaria arrasatearraren ustez.

Nola ikusi duzu partidua kantxa barrutik?

Nahiko parekatuta, baina azken hiru partiduetan bigarren eta hirugarren laurdenetan kontzentrazioa galtzen dugulako-edo behera egiten dugu. Gaur [zapatua] ere hori gertatu zaigu eta 20 puntuko aldea atera digute. Alde hori gainditzea oso zaila da baina partidua irabazteko aukera izan dugu. Horrek erakusten du gure esku dagoela, ondo aritzen bagara.



Ander Mallabiabarrena. | J.B.

Maila aldaketa igarriko da, ezta?

Argi dago, kategoría gogorra da. Jende semi profesionala dago. Hala ere, ondo jokatzen dugunean ligako edozein talderi aurre egin diezaiokegu.

Aurrean izan duzuen SAB Torrelavegak nolako taldea dauka?

Fisikoki gu baino askoz indartsuagoak dira. Eta ligako beste hainbat taldeekin hori gertatzen zaigu. Jokalari altuagoak eta indartsuagoak dira, eta kantxa igartzen da.

Ikusleen babes falta ez da aitzakia izango behintzat.

Ikuslegoarena harrigarria da. Taldeak harriruta geratzen dira Oñatira etorri eta harmailak jendez lepo ikusten dituztenean. Beste kantxa batzuetan ere Oñatiko jarraitzaile gehiago egoten da bertako jendea baino.

Izan ere, beste kantxetan 50 lagun inguru biltzen dira eta Zubikoan, berriz, 500 eta 600 jarraitzaile artean batu daitezke. Itzela da, txalotzekoa.

LEHENENGO MAILA

Jaun eta jabe izan zen MU La Oncinedaren aurrean (97-61)

Sailkapenean aurretik egon arren, espero baino errazago irabazi zuten Josu Larreategiren mutilek



Irudian ikus daitekeenez, barruko jokoa hobetu zuen MUK. | JOSETXO ARANTZABAL

J.B. | ARRASATE

Emaitzak erakusten duenez, aise irabazi zuen MUK zapatuko partidua. La Oncineda taldekoak baino jokalaria gazteagoak ditu Arrasateko taldeak eta hasieratik fisikoki gehiago zirela igarri zen. MUK jarri zuen erritmoa eta defentsan zein erasoan jaun eta jabe izan ziren Josu Larreategiren mutilak. Kanpoko jokoa eta barrukoak orekatzen dabilzala uste du entrenatzaileak: "Orain arte kanpotik jokatu izan dugu baina orain poliki-poliki bagabiltza barruko jokoa hobetzen".

Azken jardunaldian oso ondo jokatu ostean galdu zuten eta dinamika onean daude arrasatearrak. Larreategi oso pozik dago taldearekin; ea bolada onari eutsi eta sailkapenean gora egiten duten.



SENIOR EMAKUMEZKOAK

JOSETXO ARANTZABAL

Talde gogorra aurrean, eta irabazi

Eskoriatzako taldeak garaipen baliotsua lortu zuen zapatuan. Eurekin batera sailkapenean goiko postuetan dagoen Cafes Aitonaren bisita izan zuten Manuel Muñoz kiroldegian. Markagailuan hainbat gorabehera izan arren amaierara 52-38ko emaitzarekin heldu ziren bi taldeak. Talde gogorra izan zuten aurrean eskoriatzarrek; defentsan egindako lan ederra izan zen garaipenaren gakoa.



Udaletxeko pleno aretoan jokatu zituzten txapelketako azken partidak. | JULIO CALLEJA

ARRASATE HIRIA

Ezustekorik ez eta Alejandro Franco nagusi berriz ere

Madridarrak parte hartzen duen seigarren aldia da eta txapela eskuratzen duen laugarrena.

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Alejandro Franco madrildarrak irabazi du Arrasate Hiria txapelketaren XI. edizioa. Egubakoitz iluntzean jokatu zen txapelketaren azken jardunaldia, ohitura denez, udaletxeko pleno aretoan.

Azken partida jokatu aurretik, Francok poltsikoan zuen garai-pena; izan ere, nahiz eta partida galdu, txapelketako bigarren sailkatuak, Iñigo Argandoñak ia ez zuen madrildarra harrapatze-

ko aukerarik. Gauzak horrela, Francok partidaren akats larriak ez egitearekin nahikoa zuen txapelketa irabazteko; baina, bere aurkaria, Isidro Ruiz arrasatearra, ez zen partidara aurkeztu.

Txapelketako irabazlea erabakita, sailkapenean bigarren eta seigarren postuen arteko lehia izan zen egubakoitz iluntzeko jardunaldiko ikuskizuna. Esan daiteke, Josu Tornayk, Iñigo Argandoñak, Egoitz Irurek, Alain Prietok, eta Jose Manuel Her-

nandok bi partida jokatu zituztela, bat beraien taula, eta bestea, aurkarien mahaietan.

Azkenean Argandoñak, Prietok eta Tornayk jokaturako partidak irabazi zituzten eta Irure eta Hernandoren aurrez aurreko berdinketarekin bukatu zen.

Azkenean, sailkapenean, Argandoña bigarren, Prieto hirugarren, Tornay laugarren, Irure bostgarren eta Hernando seigarren.

Maila handiko txapelketa

Arrasate San Andres xake elkarteko kideak pozik agertu ziren txapelketaren sei jardunaldietan jokalariek erakutsitako mailarekin eta, baita ere, jokalarien artean izandako borrokarekin. Izan ere, azken momentua arte, emozioz beteriko txapelketa izan da.



ALEJANDRO FRANCO
TXAPELDUNA

"Lan ona egin dut, gehiago ezin nuen egin"

Pena zuen Francok, beste batzuetan baino partaide gutxiago izan dituelako aurten txapelketak. Hemengo jokalariek maila oneko partidak jokatu eta beste lehiak presatatzeko aukera ona dela dio.

Egindako lanarekin gusturara?

Txapelketa ona egin dudala esango nuke. Gehiago ezin nuen egin. Tablak egin nituen partida batean, jokalaria on baten kontra, eta beste bost lehiak irabazi ditut.

Berriro garaile Arrasaten.

Ondo moldatzen naiz hemen-go txapelketan. Egia da lehenengo zerrendaburua izaten naizela beti, eta logikoa ere bada irabaztea.

XAKE AZKARRA

Francisco Miguel izan zen onena xake azkarreko lehian

A.M. | OÑATI

35 xake jokalarik parte hartu zuten zapatu goizean Oñatiko XVII. xake azkarreko txapelketan, eta horietarik onena Francisco Miguel arrasatearra izan zen. Bigarren Alejandro Franco, Arrasate Hiriko txapelketa izan zen eta hirugarren Asier Etxagibel arrasatearra. Txapelketaren irabazleak 200 euroko diru saria jaso zuen, bigarrenak 170 euro eta hirugarrenak 135 euro.

Baina horiek ez izan ziren zapatuan banatutako sari bakarrak, izan ere, antolatzaileek herriko xake jokalaria onenak ere saritu zituzten. Oñatiarren artean, Aiksan Leonard Gomez izan zen onena eta 16 urtez azpikoetan, berriz, Aritz Zabaleta.

Oñatiko xake txapelketa suitzar erara jokatzen da; hau da, sei itzulitara jokatzen dira partidak eta jokalaria bakoitzak 15 minutu ditu bandera jaitsi ahal izateko.

Antolatzaileak pozik agertu dira txapelketak izandako harrerarekin; izan ere, aurreko urteetan baino parte hartze handiagoa egon zen.

LENIZ
ESKORIATZA

SUZUKI

**Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
injektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa**

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 40 10 Posta-e: rleniz@euskalnet.net



Bi taldetako jokariak touche baten. | JULIO CALLEJA

ERRUGBIA

Sailkapeneko azkenari ezin izan zioten irabazi ARTkoek

Igor Isasiren mutilek galdu egin zuten Bera Beraren aurka bederatzi puntugatik (26-17)

IRATI GOITIA | ARRASATE

Bera Bera, sailkapeneko azken taldea, hartu zuen Kanpanzar ART taldeak etxean domekan, baina ezin izan zion irabazi.

Hutsegitea eta entsegua

Igor Isasiren mutilak ez ziren ondo hasi. Lehen minutuan egin zuten hutsegite baten ondorioz, entsegua egitea lortu zuen kanpoko taldeak. Arrasateko bi jokari baloiaren bila joan, eta komu-

nikazio faltaren ondorioz, ez batakerik ez besteak ezin hartu. Bera Bera-koak argi zeuden eta baloia berreskuratu eta entsegua egin zuten.

Ondorengo minutuetan nahiko parekatuta egon zen partidua. Hala, bosna berdinduta joan ziren lehen zatian.

Bigarrenen ere kale dezente

Bigarren zatia ere hutsegite batekin hasi zuten ARTko mutilek. Oraingoan, jokari bati baloiak

labain egin eta arerioak ondo aprobetxatu zuen aukera, beste entsegu bat egiteko. Hala ere, bigarren zatia erdialdera agintea hartu eta bi puntura murriztu zuten aldea arrasatearrek (17-19). Ondo ibili ziren, baina amaieran berriro etorri ziren kaleak eta azkenean ezin irabazi.

Partiduaren ostean Igor Isasi entrenatzaileak honakoa esan zigun: "Jarrera aldetik ondo ikusi dut taldea, baina jarrera ez da nahikoa puntuak lortzeko. Guztiek jarri behar dituzte pilak". Izan ere, Isasi adierazi zigun kanpora 15 jokalarirekin joan behar izaten dutela, eta entrenatzen hamar izaten direla. Hori partiduetan igarri egitean dela uste du. Eta datorren astean sailkapeneko lehenaren etxera doaz, Igoerrera. Hobe to aritu beharko dira.

MENDIA

Zailtasunak bizi dituzte Trasantartika espedizioan

Alberto Inurrategi, Juan Vallejo eta Mikel Zabalzak zailtasunak dituzte Trasantartika espedizioan. Izan ere, eguraldia ez dute lagun eta ezin izan dituzte kometak eta eskiak erabili aurrera egiteko. Ondorioz, euren tiratu behar izan dituzte 170 kiloko lerak. Hori da azken informazioa; eguazten gauean bidalitakoa.

ATLETISMOA

Ruiz de Azuak eta Axpek euren taldeetan jarraitzea erabaki dute

Malen Ruiz de Azua eta Maialen Axpe pertika jauzilari arrasatearrek Puerto de Alicante taldeetik eskaintza jaso dute, baina euren taldeekin jarraitzea erabaki dute; Irungo Bidasoarekin eta Atletico San Sebastianekin, hurrenez hurren. Gainera, PGM Polmetasaren babes izango dute aruten atleten.



PIRAGUISMOA

JOSETXO ARANTZABAL

Beti-bustiko gazteak bikain

Piraguismo probak jokatu ziren zapatu arratsaldean Bergaran, eskola kirolaren barruan, alebin eta infantil mailetan. Beti-busti taldeko zortzi neska-mutikok hartu zuten parte probetan. Trebe ibili ziren gainera, eta sariak ere eskuratu zituzten: Ana Murgizurrek lehenengo saria lortu zuen C1 eta K1 kategorietan eta Aitziber Iturriagak bigarren saria C1 kategorian.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Beti Gazte-Oiartzun	1-1
Behobia-Elgoibar	0-3
Roteta-Bergara	2-1
Aurrera-Hondarribia	1-1
Pasaia-Trintxerpe	0-0
Aloña Mendi-Mondra	4-2
Anaitasuna-Urola	0-0
Berio-Aretxabaleta	2-0
Real Union-Tolosa	1-0

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Anaitasuna	23	11
2 Berio	22	11
3 Pasaia	21	11
4 Tolosa	19	11
5 Oiartzun	18	11
6 Beti Gazte	17	11
7 Real Union	17	11
8 Trintxerpe	16	11
9 Aretxabaleta	15	11
10 Urola	15	11
11 Hondarribia	15	11
12 Elgoibar	14	11
13 Bergara	12	11
14 Roteta	11	11
15 Aloña Mendi	11	11
16 Mondra	10	11
17 Aurrera	10	11
18 Behobia	6	11

HURRENGO JARDUNALDIA

Oiartzun-Behobia
Elgoibar-Roteta
Bergara-Aurrera
Hondarribia-Pasaia
Trintxerpe-Aloña Mendi
Mondra-Anaitasuna
Urola-Berio
Aretxabaleta-Real Union
Tolosa-Beti Gazte

EUSKAL LIGA, GAZTEAK

Aretxabaleta-Real Union B 0-1

ERREGIONAL PREFERENTEA

Aretxabaleta B-Intxurre 3-2
Antzuola-Eibartarrak 2-0

1. ERREGIONALA

Mondra-Ikasberri 5-1
Aretxabaleta-SBB Mutrikuarrak 1-4

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Euskalduna 1-1
Bergara-Ikasberri 3-1
Mondra-Elgoibar 3-1

GAZTEAK, 1. MAILA

Eibartarrak-Aretxabaleta B 5-1
Aloña Mendi B-Arizmendi 2-0
Bergara-Eibartarrak B 3-3

OHOREZKO KADETEAK

Orioiko-Bergara 1-3
Aretxabaleta-Aurrera 0-1
Amaikak bat-Aloña Mendi 0-2

KADETEAK, 1. MAILA

Arrasate-Eibartarrak 3-1
Antzuola-Elgoibar 0-4
Aloña Mendi B Atsedena
Elgoibar-Bergara 8-0
Soraluze-Aretxabaleta B 5-3
Arizmendi-Arrasate 1-2

EMAKUMEZKOAK 2. MAILA

Berio-Otxoa - Mondra 0-2

EMAKUMEZKOAK GIPUZKOAK MAILA

Urola-Arizmendi 3-2

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPEL GIZON.

Soraluze BKE-Elgoibar 30-25

Ford Mugarri-Egia Kata taberna 32-24

1. LURRALDEKO TXAPELKETA

Goibar Irungo-Izarraitz tb. Aloña 36-32

2. LURRALDEKO TXAPELKETA

Donibane B-Arrasate 26-34

GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK

T. Chapime Arrasate-Urola 20-36

Aloña Mendi-Amenabar 33-13

Bergara-Tekniker Eibar 14-48

KADETE MUTILAK

T. Chapime Arrasate-Ordizia 26-32

Ormaiztegi-Berezo Aloña Mendi 10-32

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi-Leizaran 17-12

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi B-Bartolo Jatetxea 21-27

Aloña Mendi A-Aiala ZKE 19-19

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Natra Aloña-SAB Torrelavega 74-82

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Velaz Oncinada 97-61

LEHEN SENIOR GIZONEZKOAK

Easo Zahar-MU 46-34

Soraluze-Astigarraga 46-54

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Aloña Mendi-Oiartzun 63-42

MCM-Soraluze 49-56

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Cafes Aitona 52-38

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Eskoriatza-Berri Otxoa 2-1

GU RE KI RO LA

GOIENA TELEBISTA
HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
20:45, 22:30



goiena™

TENISA

Eneko Fernandez | AKE tenis elkarteko lehendakaria

"Kontzentrazioa behar da defentsaren eta erasoaren arteko oreka lortzeko"

- ▶ Santamas txapelketa hasi berri dute Arrasaten 32 jokalarik
- ▶ Tenisa indarberritu egin da Arrasaten: 115 bat lagun daude elkartearen

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Eneko Fernandez Arrasateko AKE tenis elkarteko lehendakaria da. Hasi berri den Santamas txapelketaren nondik norakoak azaldu dizkigu, baita elkarteak egun bizi duen egoera ere. Arrasaten tenisa indarberrituta dagoela dio: horren adibide da Oñatiko San Migel txapelketako finalera arrasatearrak iritsi zirela. **Dagoeneko martxan da Santamasetako tenis txapelketa.**

Bai, hasi dugu txapelketa, hiru garren urtez antolatu dugu aurtent. 32 jokalarik dabilta lehian, muga bat jarri genuen eta momentuan bete zen muga. Jokalari gehienak Arrasatekoak dira, baina etorri dira Zumarragoak, Eibarkoak, Aretxabaletakoak, Bergara eta Oñatikoak asko...

Idea da abenduaren 18an amaitzea. Zortzi ligaxka egiten dira eta talde bakoitzeko lehenengo biek final-zortzirenak jokatzen dituzte.

Maila oneko jokalariek daude Arrasaten. Hori zergatik da?

Elkartea zaharra da, baina azkeneko hiru urteetan berpiztu egin da. Azkenaldian asko entrenatzen gara, Gasteizko punta-puntako maisuak ekarri ditugu eta bagabiltza Oñatiko eta inguruko herrietako maila hartzen. Inguruan, Oñatikoak eta Bergarakoak dira maila handiena dutenak, inguruko txapelketak irabazi dituztenak, behintzat. Beharbada, teknika aldetik ez dute inoiz ikas-tarorik hartu, baina eskarmentua dute.

Oñatiko San Migel txapelketan ere bi arrasatear izan zineten finalean. Zuk zeuk bigarren egin zenuen.

Sebas Sierrak eta biok jokatu genuen finala joan den aste bukarran. 6-4 eta 6-4 irabazi zidan Sebas. Partidua ikusi zutenek esan dute nik galdu nuela partidua. Irabazten hasi nintzen, baina gero huts asko egin nituen. Partiduko tantoak eta hutsak, denak egin nituen nik.

Nolako entrenamenduak egiten dituzue?

Guk bost edo seiko taldeak egiten ditugu eta astean bi ordu entrenatzen gara. Entrenamendu teknikoak izaten dira, izerdi askorik ez dugu botatzen, jokalarik asko gaudelako eta pistak banatu egin behar direlako. Gainontzeko egunetan partiduak egiten ditugu gure kontu. Elkarte barruan ranking bat jokatzen dugu 40 bat jokalarirekin.

Esan daiteke hiru urtetik hona tenis zaletasuna piztu egin dela Arrasaten?

Egia esan, orain tenisa gainezka



Eneko Fernandez, Musakolako pistetan erraketarekin. | A.E.

"Gasteizko punta-puntako maisuak ekarri ditugu entrenamenduetara"

"Tenisa berezia da oso; bakarrik zaude zure buruaren kontra"

"Argiarekin ditugu arazoak Musakolan, baina konponbidea jarri dugu"

dago. Hasi ginenean, orain dela hiru urte, lehenengo irakaslea etorri zenean 20 ikasle ginen, bigarren urtean 40 inguru eta aurtent hitzarmena egin dugu Leintz eskola kirolarekin, eta eurek ume asko bidali dizkigute. Gainera, paddle ikastaroak ere ematen hasi gara. Aurtent 115 bat jokalarik gabiltza entrenatzen. Egia esan, dauzkagun pistendako nahikoa edo larregi ere izan daiteke, baina gura duenak badauka oraindik talderen baten parte hartzeko aukera.

Zaletasuna badago orduan. Zer dauka tenisak beste kirol batek ez daukana?

Ez dakit, berezia da oso. Bakarrik zaude zure buruarekin, tekniko-ki asko entrenatu behar da eta maisu bat behar duzu txikitant, kalean ikasten ez den kirola delako. Oso psikologikoa da... zure buruarekin pikatzen zara, baina hori kontrolatzea da zailena, nire kasuan, behintzat. Kontzentrazio osoa behar da defentsaren eta erasoaren arteko oreka mantentzeko.

Tenisa elitiko kirola dela esan daiteke?

Beharbada, lehen bai, baina gaur egun ez. Hemen tenisean jokatu ahal izateko kiroldegiko bazkide izatea beharrezkoa da edo sarre-rra ordaindu behar da. Erraketak 50-90 euro inguruan daude eta horiekin urteetan ibil zaitezke. Beste kirol guztietan moduan, oinetakoak, pilotak... azken finean, kiroldegian jokatzen dugu eta ez dugu beste kirolariek baino gehiago ordaintzen.

Bakarkako kirola da, beste tenis jokalarik baten aurka egiten dena. Egoskorra izan behar da?

Bai, egoskorra izan behar da. Alde batetik, teknika ikastea kosta egiten da, batez ere berandu hasi garenoi. Bestalde, partiduetan burua argi izatea beharrezkoa izaten da, taktika bat gauzatzeko teknika menperatu eta kontzentrazioa mantendu behar delako uneoro. Taldekako kiroltan taldekideak lagun zaitzake, baina tenisko partiduetan ez dugu entrena-tzailearekin hitz egiteko aukerarik ere.

Gustuko pistak dira Musakolakoak?

Ez daude gaizki; egia esan, ondo daude. Estalita egotea pozteko modukoa da, baina badaude hobetu beharrekoak... Batez ere, argiteriarekin dugu arazoa, eta baita kanpoko eta barruko kontrastearekin ere; hala, argiaren arabera, batzuetan pilota ikustea zaila izaten da. Hori konpontzeko bidea jarri dugu, AUKEArekin berba egin dugu eta fokuak lekuz aldatuko dituzte, eta baita pistaren atzealdea estali ere, kontrasterik ez egoteko.

Jokatzen ondo daude, baina ikusleendako toki aproposa dira Musakolako pistak?

Ez, ikusleendako ez. Ez dago harmailarik... baina, egia esan, gure lehenetasunen artean ez dago harmaila bat jartzea Musakolan. Oñatiko Zubikoa kiroldegian, esaterako, badago eta gustura egoten da partiduak ikusten.

Haurrendako jolasparkeen beste eredu baterantz Europan; eta gurean?

Eneko Barberenak Adventure Playgrounds parkeak aurkeztu dizkigu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
Naturarekin lotura estuagoa duen Adventure Playgrounds jolasparke eredu aurkeztu du asteon Txatxilipurdiko presidente Ene-

ko Barberenak, Arrasate Irratian egindako elkarrizketa baten. "Umeendako gero eta espazio babestuagoetara egin dugu azken urteotan. Jolasparkeetan plasti-

koa, lur biguna eta kolore gero eta biziagoak nagusitu dira. Aldrebes gabiltza", adierazi du Barberenak. "Europan beste noranzko bat dute: Adventure Playgrounds eredu, hain zuzen ere".

Eredu horretan beste estimulu batzuk proposatzea planteatzen da. "Estetikoki oso jolasparke diferenteak dira, gaur egungo gure kanonetarako narrazioak izan daitezke, baina demostratuta dago hori dela dibertigarria. Europa mailan doazen joerak hortik doaz", esan du Barberenak. Kolore leunagoak eta hondarra, lurra, hostoak... mota horretako elementuak proposatzen ditu; natura kontaktu horrek dakartzan onura guztiekin... "Umeek benetan ondo pasatzen dute zuloak eta tunelak egiten, eta gaur egungo jolasparkeek ez dute aukera hori ematen".



Adventure Playgrounds eredu jarraitzen duen parke bat. | ELL BROWN

Gorreriaren detekzio goiztiarrak berebiziko garrantzia du arazoa gainditzeko bidean

Jarraipen profesional egokia eginda, emaitza garrantzitsuak lor daitezke adingabekoengan



Haur bat, esaten diotena ez entzuteko belarriak tapatzen. | ONERAS

L.Z. | ARRASATE

Madrilgo San Carlos ospitale klinikoko Carmen Jaudenes doktoreak berriki egindako ikerketa batek erakutsi du ume gorrek gainerako ikaskideen maila bera lor dezaketela eskolan. Detekzio goiztiarra ezinbestekoa da ahalgin horretan eta entzumen arazoak leundu nahi badira beharrezkoa izango da diagnostikoa egin ostean jarraipen profesionala egitea -logopeda, pedagogo...-; eta familiar, horretarako, babes handia behar dute; ekonomikoa zein psikologikoa. Izan ere, jaioberri guztiei egin behar zaizkie gorreria detektatzeko probak. Eta arazoaren balorazioa egin ostean tratamendua erabaki behar da. Laguntza psikologikorako edo orientaziorako hainbat elkarte daude; besteak beste, Aransgi eta Fiapas.



Haurdun. | BWANA4711

Larraitz Arando: "Gure inguruan gelditzen dira haurdun gaztetxoak"

Errealitate horri bere tokia emateak existitu egiten dela onartzen lagunduko digula dio Arandok

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Madrilgo Complutense Unibertsitatean nerabeen haurdunaldien gainean egindako ikerketaren ondorioak abiapuntu hartuta egin du gogoeta *Guraso.com* atarian Larraitz Arando sexologoak. Margarita Delgado-ren ikerketak dio Espainiako Estatuan gero eta nerabe gutxiago gelditzen dela haurdun. "Ez nator ikerketaren kontrakoa adieraztera, haurdun gelditzen diren gaztetxoek haurdunaldi ikusezinak azaleraztera baizik", azaldu du Arandok. "Ez dakit Euskal Herriko beste herrietako errealitatea zein den, baina Arrasate inguruan, behintzat, gaztetxo asko gelditzen dira haurdun (...) Gurera profil guztietako neska-mutilak etorri dira". Gehienak estu eta larri etortzen direla azaltzen du Arandok: "Beldurtuta", "kezkatuta", "sentsazio txarrekin" eta "pre-siopean".

gelditzea ez da oraindik ongi ikusia: errore bat da, arinkeriaz jokatzearen ondorio bat (...). Ondorioz, haurdunaldiaren inguruko erabaki guztiak isiltasunean eramatea oso ulergarria da".

Afektua eta estimua

Arandoren ustez, gurasook gaiarekiko dugun ikuspegi orokorra lan dezakegu. "Errealitate hau nahiko ohikoa dela sinesten badugu, drama izatetik zailtasun izatera pasako da. Mintzatu eta konpondu daitezkeen zailtasun bat (...) eta inguruan nahigabeko haurdunaldi bat tokatuz gero gauza xume baina oso lagungarriak eskaini ditzakegu. Besarkatu, kezka lasai adierazi, hartuko duen erabakia errespetatu eta maitasuna adierazi, bere ondoan gaudela senti dezala".

Gakoa, sexu hezkuntza

Arandoren esanetan gaztetxoek haurdunaldiei buelta emateko gakoa sexu-hezkuntza da -etxean, ludotekan, kalean, gazte txokoan, ikastetxean...-. "Gure seme-alabak informatzeaz gain, sexualki hezten". Eta gomendio txiki bat egiten du; "Ez dago erantzuteko modu bakararra. Bakoitzak ahal bezala egingo du (...) Ez epaitu haurdun gelditu den alaba, loba, laguna... Maitasuna eskaini. Maitasuna".

Sozialki zigortuak

Errealitate horri jendartearen dagokion tokia emateak garrantzitsua deritzo Arandok. Gaztetxoak, gurean ere, haurdun gelditzen direla azpimarratzen du. Gaineratzen du ondorio sozialak saihesteko askok haurdunaldia isilpean mantentzea erabakitzen dutela, eta errudun eta bakarrik sentitzen direla. "Euskal Herriko kultura zurrun honetan nahi gabe haurdun

OHARRAK

EUSKARAZKO PRODUKTUAK

Kalean da 2011-2012ko euskarazko produktuen katalogoa. Haurrendako eta gazteendako hamaiaka produktu jasotzen ditu aurten ere eta egunotan 200.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herri osoan. Musika, filmak, aldizkariak, liburuak, gurasoendako materiala, jostailu eta jokoak.. Aukera zabala da.

TXOTXONGILO IKUSKIZUNA

Gus txotxongilo taldeak *Liburuzaina estu eta larri* lana eskainiko du hilaren 26an, zapatua. 5 urtetik gorako neska-mutikoen dako proposamena da. Emanaldia euskaraz izango da, Aretxabale-tako Udal Liburutegian, 11:30ean hasita. Liburuen garrantziaz ariko dira ikuskizuneko txotxongi-loak. Sarrera doan da.

BEGIRALE LANPOSTUAK

Eskoriatzan abenduaren 28an eta 29an goizez eta arratsaldean egingo den Gabonetako parkerako begiraleak behar dituzte. Ezinbestekoa da euskaraz jakitea. Interesatuak azaroaren 30a baino lehen bidali behar dute curriculuma *Gazteria Zerbitzura*, kultura etxera edo *gazteria@eskoriatza.net* helbidera.



KULTURA



Agertoki gainean, Izaskun Murgia elkarte lirikoko abesbatzako kideak estreinaldia; behean, Arrasate Musikaleko orkestra, Iker Olazabal zuzendariaren gidaritzapean. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

Ikuskizun eta arrakasta borobila

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Zarzuela generoa ezagutzen ez duena ere ez da axolagabe geratuko Izaskun Murgia elkarte lirikoko kideek egubakoitzean estreinatutako *La revoltosa* ikuskizunarekin. Urtero moduan, lepo bete zen Amaia antzokia eta hainbat txalo zaparrada izan ziren ikuskizunak iraun zuen bi orduetan. Eta noski, amaierako txaloez luze jo zuten. Ikusleak, emanaldiaren amaieran adierazi zigitenez, oso gustura izan ziren.

Arrakasta borobila, baina baita ikuskizuna ere. Urte osoko lanaren emaitza da zarzuela, eta dena azken xehetasunera arte zainduta dago. Eta hori hasieratik igarri zen estreinaldian: testua, ahotsa, musika, interpretazioa, jantziak, dekoratua, dantzak...

FITXA	
AMAIA ANTZOKIA	
IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOA	
Generoa: Zarzuela.	
Non: Arrasate.	
Eguna: Egubakoitzea, azaroak 18.	
Iraupena: Bi ordu.	
Bestelakoak: Amaia antzokia lepo bete zen estreinaldian.	

Guztia oso ondo zaindua eta landua. Izaskun Murgia elkarte lirikoko kideen interpretazioa eta ahots paregabeak eta, nola ez, Iker Olazabalek gidatutako Arrasate Musikaleko orkestra, bikain. Txalotzekoa ere soinuaren kalitate. Izan ere, dena ondo irten zen ikuslearen begira, hau da,

atsedenaldia iragartzeko oihala behar baino beranduago jaso izana izango zen ikusleak igarri ahal izango zuen akats bakarra. Seinale ona da hori.

Eta hori guztia gutxi balitz, Arrasateko zarzuelaren berezitasun nagusia da agertoki gainean herritarrek hartzen dutela parte; hori, uko egin ezineko amua da ikuslearendako.

Madriren girotua, aurten ere

Azken urteetako *El barberillo de Lavapiés* eta *La Gran Via* zarzuelari jarraipena emateko asmoz, XIX. mendeko Madrilgo giroa ekarri zuten elkarte lirikoko Amaia agertokira. Mari Pepa eta Feliperen arteko amodio-eta tarteka itxurazko gorroto-istorioan oinarritzen da argumentua.

Izaskun Murgiakoei garai hartako Madrilgo patio bateko giroa ezin hobeto islatzea lortu dute. Obra ondo edo txarto amaitzen den esatea ez legoke ondo oraindik ikusi ez dutenendako. Horiek zapatu eta domeka honetan dute hitzordua, 19:30ean.

Ruperto Chapi maisuaren *La revoltosa* sainete lirikoa motzegiaenez, beste sei pieza gehitu zizkion Tere Gonzalez zuzendari orokorrak ikuskizunari: *La Verbena de la Paloma*, *El año pasado por agua*, *La Calesera*, *El bateo*, *Agua*, *azucarillos y agurdiente* eta *Romanzado de los claveles*. Kantuei dago kienez, gehienak erritmo eta doinu alaiekin egindakoak izan ziren. Ezin aipatu gabe utzi bakarlariekin

ahots ederrak. Horien artean, adibidez, Mari Pepa protagonistaren paperean aritu zen Susana Vazquez arrasatearrak erakustaldia egin zuen. Beste hamar bakarlariek eta abesbatza ere bikain aritu ziren.

Elkartasun keinu eta guzti

Iaz egindako moduan, aurten ere Harreman erakundearekin kolaboratu dute zarzuelaren sortzaileek, saio bakoitzean Debagoieneko artisten koadro bana zozketatuz. Zozketa atsedendian egiten da, eta jasotako dirua Indiako Mumbai hiriko Ankur umezurtz-etxera bideratuko dute. Rafa Zubiaga, Conchita Zarragoa, Valentin Arana eta Bingen de Pedro margolarien koadro bana eman dute.

TERE GONZALEZ | ZUZENDARI OROKORRA

"Dena ondo irten da, oso pozik nago; zarzuela luzerako izango dugu oraindik"

Oso pozik zegoen Tere Gonzalez estreinaldiaren amaieran. Agertokian bertan harrapatu genuen, ikuslearen txalo zaparradak amaitu eta gutxira.

Zer moduz joanda? Pozik?

Oso pozik. Aurtengo zarzuela oso zaila zen eta dena ondo irten da, nire ustez. Estreinaldia izanda, eta ikuslearen aurrean lehen aldiz egiten denean, beti da zailagoa. Eta dena oso ondo irten da, oso pozik nago.

Ikusleek ere hala erakutsi dute. Ikuskizun osoan zehar hainbat txalo zaparrada izan dira.

Bai, ikusleak aurten ere oso



Tere Gonzalez. | J.B.

ondo erantzun du. Sarrerakdi-dabatean saldu ditugu, aurten inoiz baino azkarrago saldu direla esango nuke. Babes hori ezinbestekoa da eta horregatik ere oso pozik nago.

Eta babes horrek datorren urterako zarzuela berri bat

egiteko laguntzen du, ezta? Zalantza barik. Dagoeneko datorren urterako zarzuela aukeratu dut, *El Rey que rabio* izango da. Urtero moduan, martxo aldera hasiko gara entseguekin. Hurrengo bi urteetarako ikuskizunak ere pentsatu ditut eta beraz, zarzuela luzerako izango dugu oraindik.



JOSE RAMON BELASTEGI
ARRASATE

"Aurtengoa ere ondo egon da, asko gustatu zait. Abeslariak, dantzariak, orkestra, dekoratua... dena oso ondo zainduta zegoen. Urtero etortzeko ohitura daukat eta beti gustura geratzen naiz ikuskizunarekin".



BEGOÑA AIASTUI
ARRASATE

"Oso ondo egon da, urtero moduan. Oso gustura egon naiz ikuskizun osoan zehar. Ez nuen ezer nabarmenduko, osotasunean gustatu zait. Urtetik urtera obrak ahaztu egiten dira-eta beraz, ezin konparatu. Oso gustura urtero".



JOSE MARI MENIKA
ARRASATE

"Oso ona izan da ikuskizuna, oso polita. Hainbat talde ezberdinek hartzen dute parte eta oso ondo batzen dira; osotasunean gustatu zait obra. Ez naiz urtero-urtero etortzen, baina ia beti etortzen naiz".

Hitchcock umorez hartu zuten zapatuan 'Ti tau' rallyko parte-hartzaileek

Kalitatea eta parte-hartzea nabarmentzen dute antolatzaileek, pozik

J.B. | ARRASATE

Ezin pozago amaitu zuten eguna zapatuan Eskoriatzan. Pozik, batetik, IKO 09 taldekoak, txapeldunak eurak eta 300 euroko saria poltsikoratuta; eta pozik, beste aldetik, baita ere antolatzaila, 13 talde eta 90 bat lagunek izena emanda eta "kalitate handiko lanak" aurkeztu zituztelako, Joseba Gabilondo antolatzailaetako batek harro esan

moduan. Herritik bertatik, Eskoriatzatik, bost talde aurkeztu ziren.

Hitchcock protagonista

Alfred Hitchcocken *Psycho* filma izan zen gaia, talde gehienek umore ukituarekin hartu zutena. Azkenean baina, mamuak, hildakoak eta poesia nahasten zituen IKO 09 HUHEZIKO ikasle talde batek osatutako lanak irabazi

zuen. Ikusleen saria Eskoriatzako Hegohaixe taldeak eskuratu zuten, hauek bai, umorezko istorio zoro batekin. Urdaiazpikoa izan zuten sari moduan.

Aurtengo lanen kalitatea nabarmentzen dute antolatzaileek eta filmak, elkarren artean zelako ezberdinak izan diren. Sormena eta umorea, horietan aurtengo *Ti tau* film laburren rallyaren gakoak.



Petti, barikuan, Bergarako gaztetxean. | JULIO CALLEJA

Petik kantuz eta kontuz jarri dio doinua Txaparen ikasturte berriari

J.B. | ARRASATE

Luxuzko gonbidatuarekin aurkeztu zuten Txapa irratikoek egubakoitzean ikasturte berriko programazioa; irrati komertzial batek baino gehiago bere-tako gurako zukeen askotariko eta parte-hartzailea. Saioen aurkezpena eta gero, gitarra goxatu eta Berakoaren ahots

sakon eta dardara-eragileak hartu zuten Bergarako gaztetxea. Gitarra hutsarekin biluztuta ere abestien betiko distira ilunari eutsi zien Pettik, *Awañak* (2008) zuzenekoan frogatu zuten bezala. Berezi, bereizgarri, ilun eta sakon, euskal kantulari eta kontularien artean bere lekua defendatu zuten Pettik.

Pete Ross, gaur Gaztetxean

Folk eta rock musikari australiar beteranoaren kontzertua egongo da gaur 20:00etan Bergaran. Baxu-jotzailea eta bateria jotzailearekin etorriko da Ross eta Euskal Herrian eta penintsula osoan egingo duen kontzertu bakarrak izango dira gaurkoa eta bihar Gasteizen egingo duena.



Oñatiko taldeetako bat. | JOSETXO ARANTZABAL

goienakluba



Zinera joan nahi?

Deitu eta lortu Florida Guridirako 2 sarrera*

943 25 05 05



Abantailaz betetako kluba!

e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com

* Sarrerak agortu arte.

Rafa Rueda | Musikaria

"Kontzertuetan lan berriaren abesti guztiak joko ditugu"

11 abestiz osatutako eta musikari bizkaitarrak ekoiztutako lana da 'Enaren geometria'

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Makina bat eszenatoki zapaldu dituen musikaria da Rafa Rueda (Mungia, 1972). PiLT taldean ezagutu genuen eta 2006. urtean bakarkako ibilbidea hasi zuen. *Enaren geometria* izeneko lana kaleratu berri du.

Nola laburtuko zenuke zure ibilbidea?

Orain dela 20 bat urte Broken Bihotz izeneko talde batekin hasi nintzen musikagintzan. Han hasi nintzen plazarik plaza jotzen eta disko bat ere grabatu genuen. Gero PiLT taldearekin beste bost disko kaleratu genituen eta, azken urte hauean bakarkako bidea egiten ari naiz. Tartean, beste hainbat proiektutan lan egin dut, besteak beste, Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabalekin.

Bakarlar bezala lau disko kaleratu dituzu, azkena *Enaren geometria* izeneko. Nola laburbilduko zenuke lan berria?

Aurreko lanetako musika estilo beretik doan diskoa da '*Enaren geometria*'. Agian, lan berri honek, kolore gehiago du, izan ere, soinua, tronpeta edo biolina bezalako musika tresnak ere erabili ditugu. Azken urte hauean ikasitakoa diskoan islatzen saiatu naiz.

Lan berria aurkeztu hasia zara, zer nolako emanaldiak eskaintzen ari zara?

Hasierako kontzertuetan *Enaren geometria* osoa jotzen dugu eta seguruenik, askotan, diskoak duen ordena berdinean joko ditugu. Gero, beste lanetako

abesti batzuekin bukatuko ditugu kontzertuak.

Musikari askok, edo gehienek, ez dituzte zuzenean azken diskoko abesti guztiak jotzen. Zergatik erabaki duzu horrela egitea?

Oraingoan, diskoa kontzertuetan eta *rafarueda.net* webgunean bakarrik saltzea erabaki dut. Horregatik hasierako kontzertuetara datorren jendeak ez du lan berria ezagutuko, eta horrela, diskoa ezagutzeko aukera izango dute.

Bakarrik ekoiztutako bigarren lana da. Zergatik?

Gaur egun bizi dugun egoeraren isla da. Egun, diskoak saltzen dituzten dendak desagertzean daude, ia ez dago dendetan gure lana saltzeko modu duinik, musika eta kultura saltzen dutenek ez dute apustu sendorik egiten eta hori ikusita, nik neuk saltzea erabaki nuen.

Diskoa zuk bakarrik saltzeak lan gehiago suposatuko du.

Bai, lan gehiago egiten dut, diskoen bidalketak egin behar ditut, webgunea egunero kudeatu behar dut... Tamalez, publikoari ere lan gehiago eskatzen dio, baina sortzailearen eta entzulearen artean harreman estuagoa sortzen da. Baita ere, gaur arte, musika saltzeko eraren aurka egiteko modu bat da.

"Musikariaren eta entzulearen arteko harremana estuagoa da orain"



Ganbara Txiki abesbatza 'Lautate Dominun' abestia kantatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Santa Zeziliaren omenez, Ganbarako gaztetxoek saioa

Musikariaren zaindariaren eguna aurrez ospatu zuten zazpi kantuz ostutako emanaldiarekin

ANDER MONEDERO | OÑATI

Nahiz eta Santa Zezilia azaroaren 22an izan, zapatu arratsaldean, Ganbara Txiki abesbatzako musikariaren zaindariaren eguna ospatzeko emanaldia eskaini zuten Oñatiko Santa Ana aretoan. Ikusmin handia piztu zuen kontzertuak, izan ere, Ganbara abesbatza oñatiarraren harrobiak, aretoa ia bete egin zuen.

Adin ezberdinetako ahots gazteek, sei abestiz osatutako emanaldia eskaini zuten, eta ohikoa den bezala, abesti klasiko eta modernoak uztartu zituzten.

Emanaldia, XVI. mendeko pieza batekin hasi zuten eta ondoren, Aitor Biain, Ganbara Txikiko zuzendariak ongi etorria eman zien aretoan bildutako 270 bat lagunei.

Agurraren ostean, kantu erlijiosoekin jarraitu zuten eta Xabier Sarasua beasaindarraren *Pater noster* eta Julio Dominguez galiarraren *Lautate Dominun*-ekin jarraitu zuten.

Horren ostean, Josu Alberdiaren *Zutitu alboan* abestiaren txanda iritzi zen. Gero, musikari oñatiar baten kantuaren txan-

da iritsi zen: Juan Karlos Irizarren pieza bat. Biainen esanetan, Ganbara Txiki, zapatua arte, inoiz ez du Irizarren piezari zuzenean abestu. *You've got a friend* abesti amerikarrarekin bukatu zuten emanaldia.


Ipuin musikatuak, abenduan

Emanaldia hasi aurretik, abenduan 2an aurkeztuko duten bi ipuin musikatuak ikus-entzunezko aurrerapena erakutsi zuten. Irailean Donostiako Easo abesbatzaren auditorioan grabatu zuten *Jostailugilea* eta *Eskolopendra* izeneko ipuinen musika. Liburuak 4-9 urte bitarteko aurrentzat zuzenduta egongo dira eta, ipuinaz aparte, ekintza desberdinak izango dituzte: denborapasak, jokoak, eskulanak...

Ipuin musikatuak nola egin ziren erakusteko ikus-entzunezkoa ere egin dute Ganbarakoek.

Ardo eta pintxo artean Irurtzunek bi liburu aurkeztu ditu

Patxi Irurtzun idazle iruindarrak *Dios nunca reza* eta *iOh Janis, mi dulce y sucia Janis!* liburuen aurkezpena egin zuen zapatu arratsaldean Arrasateko gaztetxean. Aurkezpenean, idazleak bi liburuen nondik norakoak azaldu zituen eta bertan izan ziren 20 pertsonen, idazlearen hitzaldiaren ostean, ardo eta pintxoek gozatzeko aukera izan zuten. Josu Arteaga *iOh Janis, mi dulce y sucia Janis!* liburuaren prologoa idatzi duen idazle arrasatearrak, aurkeztu zuen era intimoan egindako ekitaldia.



ANDER MONEDERO



Rafa Ruedaren disko berriaren promozio argazkia . | JOSEBA BARRENETXEA

DEBAGOIENA EZAGUTZEN



Horra hor eskualdeko bi herri: bata lainoan eta bestea agerian. Zeintzuk dira?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar

JAKIÖN

www.jakion.es

Jakionek emandako
Produktu sorta*

* 50 eurotan baloratutako sorta.

PARTE HARTZEKO
Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez. Bidali KLUBA ERANTZUNA
[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

2 SARRERA

'La Revoltosa' zarzuelarako
Amaia antzokian, azaroaren 26an. 19:30ean.

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



Topakide txartelarekin parte hartzeko
deitu **943 25 05 05** telefonora.



2011n atera etekina txartelari

gahir fisioterapia
osteopatia

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41

■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.

**CLINICA DENTAL
BERGARA**

CLÍNICA DENTAL BERGARA

Bergara, 943 76 05 77

- -%10 zerbitzu guztietan
 - -%15 inplanteetan
 - Aho-garbiketa doan,
 - 120 eurotik gorako tratamenduetan
- Bazkidearentzat eta familiako batentzat



NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89

■ -%15 zerbitzu guztietan.

ETA HAUETAN ERE BAI



goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 48 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



**ARANTZAZU
SAIZ**
PIANO-JOTZAILEA

GURE ARTISTAK



Arantzazu Saiz piano-jotzailea, taldekideekin, entsegu baten. | ARANTZAZU SAIZ

"Jazza beste hizkuntza bat da; ordu asko eman behar da hau lantzen"

- ▶ Piano klasiko eta modernoko eskolak ematen dihardu, besteak beste
- ▶ Arantzazu Calleja soinu-banda egilearekin proiektua du esku artean

MAIDER ARREGI | OÑATI

Jazz piano-jotzailea da Arantzazu Saiz oñatiarra. Ikasketa klasikoak egin dituen arren, bestelako estiloetan ere badabil eta, besteak beste, jazzak eta gospelak erakarri dute azkenaldian.

Klasikotik hasi eta jazzerraino salto egin duzu.

Oñatiko Musika Eskolan egin nituen ikasketak. Arazeli Guridi irakaslearekin, 8. mailara arte piano klasikoak ikasi nuen. Ondoren, Donostiako Kontserbatorioa joan nintzen. Klasikoa 10. mailara arte egin eta 24-25 urterekin bukatu nuen. Ondoren, Iruñean eskolak ematen jardun nuen eta klasikoak bukatu nuenean jazzera salto egin nuen; Beti gus-

tatu izan zait musika modernoa. Donostiako Jazzlen ere ibili nintzen. Gero, Bartzelonara joatea erabaki nuen eta Taller de Musics eskolan egon naiz 4 urtez.

Klasikoa oinarritzkoa izango da base on bat izateko, ezta?

Bai; izan ere, ez dago zertan 10. mailara arte ikasi, baina bietatik jaso behar da. Edozelan ere, klasikoaren oinarria beharrezkoa da. Eta modernoak ematen duen beste hizkuntza, ordea, oso garrantzitsua da. Klasikoan beti gaude papererari begira eta modernoak, aldiz, entzumenaren garatzen gehiago laguntzen du, beste gauza batzuk irakasten ditu.

Jazza gutxiengo batendako da? Elitista da?

Beti egiten den galdera da. Jazzak, egun, estilo eta fusio asko ditu. Jazza entzuteko, denbora bat behar da; belarria egin behar da eta jende gutxi hartzen du denbora horretan interesa jartzeko. Beraz, jendeak bere denbora eta ikasketa prozesua behar du musika hori entzuteko eta jazzaz disfrutatzeke. Dena den, gaur egun estilo asko dago.

Jendeak badu zaletasunik?

Bartzelonan bai, taberna eta areto askotan ia egunero daude jazz kontzertuak. Euskal Herrira orain dela sei hilabete etorri naiz eta egia da mugimendu txikiagoa dagoela. Musikene egitasmoarekin, esaterako, jendea mugitu da. Bilbo aldean ez dut zuzeneko

askorik ikusi. Dena den, lehen baino mugimendu handiagoa dago, batez ere Musikeneri esker. Egia da Gasteizen edo Getxon egiten diren jazzaldiek lagundu egiten dutela musika hau gertuago egiten, sentitzen. Hor dago Jamie Cullum gaztea. Popa eta jazz bateratzen ditu. *Jazz-zaleen* kritikatu egiten dute, baina nik ondo ikusten dut, bestelako entzuleak erakartzeko balio du eta.

Jazza inprobisazioa da, guztiz ezberdina klasikotik.

Klasikoak partitura interpretatzea eskatzen du; musika modernoan, aldiz, bestelako ezaugarriak garatzen dira. Inprobisazioa joko bat da. Baina hori ere ikasi egin behar da, jazz beste hizkuntza bat da eta asko ikasi beharra dago. Piano-jotzaileak oso solistak gara normalean, bakarrik asko jotzen dugu eta musika modernoak taldean jotzeko aukera ematen digu, hori zoragarria da. Taldean erosoago sentitzen naiz.

Irakasle lanetan zabilta orain.

Bai. Piano klasiko eta modernoko eskolak ematen ditut. Baita umeendako tailerrak ere, eta lengoia musikala. Harmonia eta harmonia modernoko eskolak ere eman ditut, denetarik. Arantzazu Callejarekin elkarlanean ibili naiz. Callejak film laburrendako soinu bandak egiten ditu eta badaukagu proiektu bat esku artean, ea aurrera irtetzen den.

Jazza zure bizitzako soinu-banda da?

Jazz-zalea nahiz, baina funka asko gustatzen zait, eta baita pop musika ere. Gospel abesbatza baten ibili naiz eta asko gustatzen zait. Ez naiz egun osoa jazz entzuten ari etxean. [Barre]

Zenbat piano dituzu?

Gurasoen etxean betiko pianoa daukat. [Barre]; nire etxean, aldiz, piano digital bat. Baina beste piano bat erosteko asmoa daukat. Yamaha piano akustiko bat; izan ere, isats-pianoa ez zait etxean sartuko...

Ze asmo esku artean?

Orain berriro ere Euskal Herrian nago, eta gurako nuke Deba-goieneko musikariak ezagutu eta haiekin harremanetan jarri eta proiekturen baten sartu! Izan ere, Oñati inguruan nabil, eta, hona bizi izatera etorriko naizenez, hemengo musikariek zerbait egingo nuke gusturara asko.

"Jazz musika entzuteko denbora hartu behar da"

"Inprobisazioa joko bat da; klasikoaren oso bestelakoa"

"Musika modernoaz belarria garatzen da"

Google Music hodeiko musika partekatzeko aukerarekin abiatu da

Google + bidez ere entzun ahalko da musika lagunen artean

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Iragarri zutena betez, abian da, Estatu Batuetan bakarrik momentuz, Google Music musika zerbitzua. *Online* musika zerbitzuak eskaini eta musika erosteko aukera emango da zerbitzu berriarekin eta horretarako merkatuko hiru diskoetxerik garrantzitsuenen babesa daukate Google-ekoek: Sony Music Entertainment, Universal Music Group eta EMI. Warner da musikaren handikien artean akordioetatik kanpo geratu den bakarra.

Musika, hodeian

Musika hodeian eskainiko zutela agintzen lehenak izan ziren Googlekoak eta, lehiakide nagusien artean, Applekoak iCloud-arekin aurreratu bazaizkie ere, iragarpenak bete eta aukera gehiago eskainita datoz oraingoan Googlekoak *Music* zerbitzuarekin –Apple eta Amazon dira lehiakide nagusiak–. Hasteko, Android erabiltzaileek edozein gailutatik izango dute musika artxibategira sarbidea eta nahi izanez gero 20.000 abesti partekatu ahal izan-



Egueneko aurkezpen ofizialeko irudia. | REUTERS

go dituzte dohainik gainontzeko erabiltzaileekin. *Streaming* bitartez eskaintzen ditu abestiok, Spotify zerbitzu ezagunaren moduan. Hodeiko biltegitarte sistema nagusien artean bakarra

da momentuz lekua uztearren kobratzen ez duena. Abestiak, ezin bestela, Google + sare sozialaren bitartez partekatzen dira lagunekin eta haiek, behin gutxienez, doan entzun ahalko dituzte

erabiltzailearen abestiak. Zerbitzuak, katalogo modura, u honetan zortzi milioi abesti eskaintzen ditu baina espero da hurrengo hilabeteetan 13 milioikoa izatea eskaintzen duten kantu

kopurua. Abestiak hodeira igotzeko aukera maiatzetik dago. Google Music-en *beta* bertsio batekin erabiltzaileak hodeian biltegi zitzakeen bere abestiak baina orain arte ez zeukaten akordioarik diskoetxeekin ezta abestiak saldu eta partekatzeko modurik.

Independenteek ere lekua

Diskoetxe handiei zein etxe txiki zein artista independenteei aukera ere ematen die zerbitzuak *Artist Hub* delakoan. Musikari independenteek 25 dolarren truke zabal dezakete kontua eta bertatik eskaini euren musika. Zentzu honetan berritzailea da Google, atea ireki egiten baitie euren kontura dabilen sortzaileei.

Zerbitzu berri honekin Apple-en iTunes eta haren Match zerbitzua ditu jomugan, Androideko erabiltzaileak euren ekosistemara lotzeko asmo garbiarekin, Applek iOS sistemarekin egin duen bezala. Android Market delakoaren barruan aurki daiteke Google Music denda. 320 kbps-eko konpresioarekin eskaintzen dituzte abestiak eta 90 segundo ko aurre-entzunaldiak egiteko aukera ematen du. Software guztia OSX, Windows eta Linux sistemekin da bateragarria. 0,99 eta 1,29 dolar arteko prezioa dute abestiek. Android sistema erabili barik eta Market-etik pasatu barik ere eros daiteke musika, noski; *music.google.com* izeneko helbidean aurki daiteke musika denda birtuala.

Lana bilatzekoak izan dira aurtengo webgune bisitatuena Europar

J.B. | ARRASATE

2011ko interneteko audientzia lanari buruzko orrialde eta webguneetan ibili da gehien bat nabigatzen. Zerbitzu profesionali dedikatutako webguneak izan dira 2011an bisitatuena eta kopuru osoaren %30 izatera heldu dira aurtengoa, hileko 108,4 milioi bisitari bakar izatera helduta. Irailean adibidez, kopurua %14 igo da. Europar *Monster.com* izeneko webgunea da bisitatuena 9,4 milioi bisitarekin. Bigarrena *Indeed.com* da 8,3 milioirekin. Bi

webgune horiek dira bisita eta emaitza kopuruetan ikusienak. Errusia da lan bila dabilen bisitari gehien dituen.

Estatuko datuak

ComScore taldeak egin du zenbaketa eta datu orokorreki begiratu joandako irailean, esate baterako, 373,4 milioi pertsona konektatu ziren sarera eta europar bakoitzak, batz bestea, 26,4 ordu egin ditu Interneten.

Estatu mailan *Infojobs* ataria da bisitatuena, bi milioi bisitari



Infojobs ataria. | GOIENA

bakarrekina eta deigarriena da webgune honetan, batz bestea, erabiltzaile bakoitzak 57 minutu egin dituela bisitako.

'Smartphone' merkeagoak saltzen hasiko da Nokia

J.B. | ARRASATE

Telefono inteligenteen merkatuaren bere zatitxo gura du Nokia baina lehiaren aurrean, prezio merkeagoen bila dabilen sektorearen jabe egitea da Finlandiako enpresaren asmoa. Zuzenean Android sistema duten saketakoekin lehiatzea da helburua, enpresako arduradunek hala esanda, eta Lumia izeneko modelo kaleratuko dute aurki 420 eurotan. Terminal merkeagoak saltzen hasteko asmoa ere iragarri dute eta merkatu kuota irabazten hasi, ostean garatzaileen interesa erakarri ahal izateko. Lumia delako modelo apustua bada ere, Android sistema darabilten *smartphone* askoz ere merkeagoak aurki daitezke dagoeneko merkatuan. Sistema eragileei dagokienez, begi onez ikusten dute Nokiakoek Windows Phonea, BlackBerryri lekua kendu eta dagoeneko eramangarrietako sistema eragileetan hirugarrena baita. Windows 8a darabilen tableta aterako dutela da zurrumurrua.

Inbertsio handiek ere ez dute lortzen Bing bilatzailea indartzea

Bilatzaileei dagokienez Google domeinua zalantza ezina da. Behin baino gehiagotan egin dute saiakera Windows-eko Bing bilatzailearekin baina ahaleginetan besterik ez dira geratu. Bilaketa guztien %65,6 Google-en bitartez egiten da gaur egun eta Bing, hazi bada ere, %14,8ko kuota batekin geratzen da. Sekulako dirutza inbertitu eta gero Bing bilatzailea azken utztean %0,1 besterik ez da hazi, Facebookekin hitzarmena lortzeko ere ez bide du lagundu.

15 minutuan kargatu eta astea irauten duten bateriak sortu dituzte

Telefonoetarako balio duten ion-litiozko bateriak fabrikatzea lortu dute Northwesterngo Unibertsitatean. Ordu laurdenean kargatu eta astebeteko iraupena daukatela diote. 150 karga eta gero ere batera tradizionalak baino bost aldiz efizienteagoak dira material berrien konbinaketarekin eginiko batera horiek. Zientzialarien kalkuluen arabera hirutik bost urtera bitartean egongo lirarteke batera berri horiek merkatuan eta erabiltzeko moduan.

Misterioa Gobin Google Earthen azaleratua

Gobiko desertuan silueta arraro batzuk antzeman dituzte Google Earthetik begiratu. Azalpenik arrazionalena zenbait zientzialarik eman dutena da eta, antza, sateliteak kalibratzeko kuadrakula erraldoiak omen dira eta gehienak bat datoz, hala ere, esaterakoan eremu militar bat dela. Azalpen ofizialik ez du inork eskaini.



GOOGLE EARTH

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Karen Ruiz Arana
Azaroaren 26an, 13 urte.
Zorionak, *wapisimo!*
Primeran pasatu zure egunean 13 urte ospatzen. Besakarda handi-handi bat etxekoan partetik.



ARAMAIO
Mirari Zubizarreta Agiriano
Azaroaren 25ean, 40 urte.
Zorionak, printzesa! Ederto pasatu eguna, politxoi. 25 kandelatxoei putz fuerte-fuerte egin! Je je je. Kiloka muxu goxo potoloak Arrasateko Zarugalde kaleko lagunengatik. Eta afaritxo bat ospatzeko, noiz? Patxoak, *guapisimo!*



ARRASATE
Antonio Baena
Azaroaren 25ean, 39 urte.
Zorionak, *guapisimo!*
Kudrilako argazkilarik gogokoenak urtetxoak betetzen ditu. Ederto pasatu eguna eta kiloka txokomuxu erraldoiak laguntxo guztien partetik! Patxoak, txapeldun.



OÑATI
Markel Barrena Bikuña
Azaroaren 26an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo asko etxekoan partetik, batez ere, Leire, Eider eta Junere partetik. Pa!



OÑATI
Jose M. Eraña Maiztegi "Kotte"
Azaroaren 26an bere urtebetetzea ospatuko du. Zorionak zure familia eta lagunengatik. Patxo handi bat.



ARETXABALETA
Igotz Ojeda Zubizarreta
Azaroaren 25ean, 8 urte. Zorionak, pirata! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi-handiak zure familia guztien partetik.



OÑATI
Jon Legazpia Larrea
Azaroaren 25ean, 7 urte.
Azkenean bai, iritsi da zure eguna! Zorionak! Aitaxo, amatxo eta Naroa.



ARETXABALETA
Danel Seijo Fernandez
Azaroaren 25ean, 11 urte.
Zorionak etxeko guztien partetik eta muxu handi bat, txapelduna!



OÑATI
Ibai Buquete Diaz de Gereñu
Azaroaren 21ean, 3 urte.
Zorionak, Ibai! Ondo pasatu eguna. Muxuak etxeko danen, eta bereziki, Aneren partetik.



OÑATI
Iker Isasti Arkauz
Azaroaren 21ean, 2 urte.
Zorionak, mutikote!
Akordau orduko betetuztu bi urtetxo. Laztan asko etxeko danon partetik, bereziki zure lehengusu Jon eta Izarren partetik. Egun ederra pasa ezazu. Muxuak, *prexiexo!*



OÑATI
Angelina Erostarbe Igartua
Azaroaren 21ean, 10 urte.
Zorionak, *guapa!* 10 muxu handi familia osoarekin, eta bereziki, ama, aita eta Artiomen partetik. Oso ondo pasatu zure egunian.



ARRASATE
Zuriñe Lasa eta Irantzu Souto
Zuriñe azaroaren 21ean, 28 urte eta Irantzuk 22an, urtebete. Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu bakoitzaren urtebetetze eguna! Zuek txokolata eta txurroak eraman eta gosea gure kontu! Milaka muxu potolo etxeko guztien partetik!



OÑATI
Mar Posada Diaz
Azaroaren 21ean, 9 urte.
Zorionak, printzesa!
Oso-oso-ondo pasatu zure urtebetetzean familiako denon partetik! Muxu handi bat.



OÑATI
Antton eta Beñat Oleaga
Azaroaren 21ean, 5 urte. Zorionak bixoiri! Beñaten eguna ondo ospatu geber azaroaren 8xan, eta oin zuri tokaiten zatzu, Antton. Patxo bana eta belarritatik tirakadaxo batzuk etxekuen partetik.



BERGARA
Ainhoa Zenitagoia Arana
Azaroaren 21ean, 7 urte.
Zorionak, printzesa!
Primeran pasaizu eguna! Kiloka patxo potolo Bartzelona aldetik!



OÑATI
Manex Axpe Intza
Azaroaren 20an, 2 urte.
Zorionak eta urte askotarako! Familixako danon partetik. Laztan handi bat!



ARAMAIO
Lukén Ballesteros Uribarren
Azaroaren 19an, 2 urte.
Zorionak, mutil handi. Bi muxu potolo zuretzako. Ondo pasatu eguna. June eta Itsasoren partetik.



OÑATI
Xabi Agirrebengoa
Azaroaren 19an, urtebetetzea. Zorionak eta besakarda handi bat zure lagunengatik. Xabi. Jarraitu osasunez beste hainbeste betetzen.



ARRASATE
Antonio Fernandez Gago
Azaroaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, aiteite eta ondo pasatu egunien gurekin! Zeure iloben partetik muxu handi bat: Ibai, Iradi, Ane eta Haitz.



ARAMAIO
Oihan Zufiria Azkona
Azaroaren 19an, 7 urte.
Zorionak, Oihan! Ondo pasatu eguna eta besakarda handi bat etxekoan, eta bereziki, Deianeren partetik. Baita Urretxutik, tia Erika eta tia Jon Anderren partetik ere.



ANTZUOLA
Oier Gabilondo Zuazola
Azaroaren 19an, 4 urte.
Zorionak familia guztien partetik. Bereziki, Imanol, Laida, Lide eta Mainerren partetik. Muxu handi bat, txapeldun!



BERGARA
Miren Elizburu eta Mirian Godoy
Miren Elizburuk azaroaren 19an eta Mirian Godoyk 21ean. *Andale, pendejas!* Juerga on bat botatzeko arrazoi on bat daukazue oinguan... tea gu betiko moduan zuen albuari. Patxo asko eta zorionak! Kuadrillia.




ARETXABALETA
Unax Larrinaga Urzelai
Azaroaren 18an, 6 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bat familia guztien partetik!



ARETXABALETA
Lide Otaduy Sagarna
Azaroaren 16an, 2 urte.
Zorionak, Lide, aiteite eta amaren partetik! Ondo pasatu eguna eta egin putz kandelak itzaltzeko.



OÑATI
Kepa Lopez Lasa
Azaroaren 15ean, 6 urte.
Zorionak Kanpantxoko piratarik! Etxeko guztien partetik; ondo-ondo pasatu zure eguna!



BERGARA
Amets Urbina
Azaroaren 14an, 5 urte.
Zorionak, potxolo! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta holaxe jarraitu. Beñaten eta etxeko danon partetik.



ARRASATE
Amalur Arizabaleta
Azaroaren 12an, 8 urte.
Gure etxeko neskatila polit eta zintzoari zorionak eta eskerrak eman digun alaitasunagatik. Oso ondo pasatu genuen zure egunean eta baita zure lagunengatik ere, txokolatadan. Besakarda handi-handia eta patxo asko!

ESKER ONA

Josefa Malax-Etxebarria Zabala

Pedro Sarasolaren alarguna



Aretxabaletan hil zen 2011ko azaroaren 13an, 88 urte zituela.

Hileta elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bizitza gogorak landua izan arren, beti partatu zinan era maitakorrean. Zure bizitzan borrokatzeko indarra eredu izan da. Beti eramango zaitugu gure bihotzetan.

Aretxabaletan, 2011ko azaroaren 21ean.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO DEITU EGUN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOK ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro. Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

JAIOTAKOAK



Carlos eta Alba Blanco Murillo

Gasteiz. Azaroaren 10a. Gurasoak: Iban eta Ines. Argazkian, anai-arrebak gurasoekin.



Eneko Bengoa Igartua

Oñati 3,600 kilo. Azaroaren 11. Gurasoak: Iratxe eta Kepa. Argazkian, Eneko sehaskan



Mateo Guerreo Gutierrez

Arrasate. 4,000 kilo. Azaroaren 14a. Argazkian: Mateo, Diana amarekin.



Noa Garcia Mondragon

Arrasate 3,650 kilo. Azaroaren 17a. Gurasoak: Olaia eta Raul. Argazkian, Noa sehaskan lo.



Branka Zubiria Cuevas

Arrasate 3,440 kilo. Azaroaren 17a. Gurasoak: Olaia eta Ion. Argazkian, Branka ama eta amamarekin.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI


Umeen paradisua



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA



HITZ GEZIDUNAK

	Zuberoako herria	Ergela	Aldapa pikoak
	Andaluzia-ko hiria	Azal	Espainiako ibaia
	* Afganistango hiriburua		
	Heldu den urtean		
Lihoaren hazi	Iratzeak		
Piper saltsa	Hondar		
Ozeaniako estatus		Iridioa	
Italiako uhartea		Baiezta-tzeko	
		Presio unitate	
		Bokalik gabeko bihi	
Tente		Bakoitzak bat	
Pl. zahi mota		Bokala	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

K	V	I	H	V	Z	R	I	B
A	N	A	B	T	U	Z	Z	
R	A	R	I	B	A	P	C	A
I	R	U	R	U	A	N	N	
A	R	A	D	A	R	E	P	P
K	A	R	O	A	K	G	A	L
L	U	L	A	B	U	K	A	B
A	A	L	A	G	A	M	A	L
M	B	L						

I	A	S	T	I	L	E	R	T	I
Z	O	R	A	N	G	E	L	X	Z
L	A	K	P	J	L	N	A	L	A
L	A	V	I	W	A	E	D	L	A
G	U	O	K	L	Z	B	P	L	G
A	E	A	V	L	T	A	A	E	
N	C	V	L	K	B	N	F	N	
S	A	E	I	P	E	M	D	E	
J	S	C	O	N	G	O	O	J	S

7	5	8	3	4	6	9	1	2
9	1	2	5	8	7	3	6	4
4	3	6	2	1	9	7	5	8
5	8	9	7	2	4	6	3	1
1	2	7	6	3	8	5	4	9
6	4	3	9	5	1	8	2	7
2	7	5	1	9	3	4	8	6
8	9	1	4	6	5	2	7	3
3	6	4	8	7	2	1	9	5



Hieroglifikoak: Zaldibia.

SUDOKUA

	6		8					5
8						2		
		5		9	3	4	8	
6								7
	2					5		
	8	9	7		4	6	3	
	3					7		8
9			5			3		
	5			4	6	9		2

HIZKI SALDA

Topa itzazu Afrikako bost erreka.

Z	C	O	N	G	O	O	J	S
S	A	E	I	P	E	M	D	E
C	V	L	L	K	B	N	F	N
X	A	V	O	L	T	A	A	E
U	O	K	L	Z	B	P	L	G
A	U	I	W	A	E	D	L	A
A	Y	K	P	J	L	N	A	L
O	R	A	N	G	E	L	X	Z
A	S	T	I	L	E	R	T	I

HIEROGLIFIKOA

Gipuzkoako herria.



Hieroglifikoak: Zaldibia.

AI, ENE!

Aterako didazu ekografia bat?

Guraso edo guraso izango diren batzuen obsesioak ez du mugarik. Azkena? Smartphonerako eko-grafo hori.

www.medgagdet.com



AHOBERO


"ElCuco'-ren amak 'La Noria'-ra etortzeagatik kobratzeak ez nau eskandalizatzen"

JORDI GONZALEZ | TELEBISTAKO AURKEZLEA

"Makillatu egin dutela esatea bezala da" esanez amaitu ditu adierazpenak aurkezle kataluniarrek. Eskerrak denek ez duten Gonzalezen moduan pentsatzen: Telecincoko programa publizitate gabe geratu da, marka guztiak euren iragarkiak kendu ostean.

www.vertele.com

EGURALDIA



Max. 16°

Min. 9°

Fronte bat hurbilduko da eta orduak aurrera egin ahala lainotu egingo du.

euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-11-21

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Vanessa Sanchez Arrasaten jaioa, gaztaroa Gasteizen eman zuen eta AEBetatik eta Paristik pasa ostean, orain Bilbon bizi da; kazetari moduan ezagutzen dugu, baina irrintzilari aparta ere bada | TXOMIN MADINA

"Irrintzi bat botatzea bizitza ospatzeko modu bat ere bada"

1. Emaitzetan sartu gabe, nola joan da hauteskunde kanpaina?
Kanpainan murgilduta egon ez naizen arren, aurreikusteko modukoa iruditu zait. Egoera ikusita, ez dira mezu sinesgarriak; izan ere, ikusten da gobernuak zeinen menpe dauden: finantzen menpe. Gauzak horrela, merezi du gastatu dutena gastatzeak?

2. "Egun on, Euskadi". Hitzok esatean, nor duzu buruan?
Aurkezten dudanean, maitatzen dudak jendea daukat buruan. Eurei kontatzen dizkiet gauzak: mezu garbi eta motzekin, eta ahal den heinean eduki askorekin.

3. Goizean goiz aurpegi ona jartzeak ez du meritu makala...
05:00etan esnatzen naiz; beraz, 08:00ak ez da hain goiz. Hasieran kosta zitzaidan gaueetatik goizetara pasatzea, prestatzeko denbora laburragoa egoten da-eta.

4. Zer geratzen zaizu egiteko informatibo baten?
Elkarrizketa gehiago. Lehen, kalean pila bat egiten nituen, eta informazioa nik ateratzea igartzen dut faltan. Baina platoon ere gustura nago, asko gustatzen zait aurkeztea.

5. Aukera izanez gero, nor elkarrizketatuko zenuke?
Jose Luis Sampedro idazlea. *Hase-rreruen* manifestazioen hasieran hari egindako elkarrizketa bat ikusi nuen eta egungo gizartearentzat oso ikuspegi interesgarria duela iruditu zitzaidan.



JON POZO

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Langabeei lana emango nieke"

"Lan beharrean dagoen jendeari lana emango nieke, guztiok lan duina izan dezagun. Gauza asko eska daitezke, baina, kontuan izanda zein egoeratan gauden, horixe eskatuko nuke".

6. Alde handia dago Vanessa Sanchez platoon edo kalean ikusi?
Janzkera aldetik akaso bai, baina nik uste dut pertsona gardena naizela, eta hori nabaritu egiten da. Kareta gutxi jartzen saiatzen naiz, ni naizen modukoa izaten.

7. Urteak eman zenituen Parisen. Bisitatze ala bizi izateko hiria da?
Bizi izateko oso ondo egon zen. Denbora laburra izan nuen Parisek eskaintzen duen guztiaz gozatzeke; baina, era berean, kazetari moduan, bestela ezagutu ezingo nituzkeen lekuetan sartu nintzen.

8. Bihurrituagatik ez balitz dantzari moduan elkarrizketatuko zintugun?
Ez, nire bizitzako garai bat izan zen; oso polita, baina oso gogorra era berean. Dantzarien bizitza ez da batere erraza hemen.

9. Eta nondik dator kizur irrintziak botatzeko afizioa?
Telebistan lehiaketak ematen zituzten lehen, eta ikusi egiten nituen; behin, proba egin eta irten egin zitzaidan. Asko disfrutatzen dut, energia asko askatzen da; bizitza ospatzeko modu bat ere bada.

10. Datorren urtean 40. Arduratzen zaituen kontua da?
Konturatzen zara bizitza aurrera doala eta egiteko asko duzula. Baina aspaldi ikusi ez dituzunekin elkartzeko une egokia da: Arrasateko lagunekin bidaiari prestatzen nabil, Gasteizkoekin kintada... 40 urteak politikaz izango dira.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Biharamuneko gogoetak

Hona hemen gaurkoa moduko biharamuneko gogoeta egiteko hiru hari-mutur.

1. Italiako gobernuburu izaniko Berlusconi. Nork ez daki Berlusconik mazo-kirten baten sentsibilitatea duela jendeaz eta haien arazoez? Ba, Italiako gobernu urtetan kudeatu duen Berlusconik jende horrengandik jaso dituen milioika botoei esker izan du ardura hori.

2. Hau ere markakoa da. Espainiako Konstituzioa aldatzeko une egokia eta jendardean kontsentsu ahalik zabalena izatea oinarri-oinarrikoak zirela entzunak gara hamaikatan. Ba, mundu mundial oso-osoak daki konstituzio horren 2011ko iraileko aldaketa (estatu-defizita barne produktu gordinaren %3an mugatzea) -karikatutari ere berea aitorturik-, Alemaniako kantziler den Merkelek Zapaterori telefonoz ezarritako aldaketa dela.

Eta azkenik, orain esnebitsetan den Raxoirena ere aipatzekoa da. Raxoiren etsaiak fin-fin aritu dira kanpainen zehar PPK ez duela gobernu-programarik salatzen. Nola kudeatuko du -zioten- gobernu bat programarik gabe? Ba, PPKri ere milioika botok eman diote aginte politikoa.



MASAJE ESCLUSIBOA

Gure masaje berria proba ezazu,

%30 eko
deskontuarekin*

* Lehen 15 bezeroendako bakarrik.

